

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### NEKAZARITZA SAILA

**Foru Gobernu Kontseiluaren 27/2023 Foru Dekretua, ekainaren 6koa. Onestea nekazaritza ustiattegietan inbertitzeko laguntzen oinarri arautzaileak, bai eta 2023ko laguntza lerro horren deialdia ere**

Nekazaritza ustiattegietan inbertsioak egiteko laguntzak, azken urteotan, Landa Garapenerako Programen esparruan garatu dira, Nekazaritza Politika Bateratuaren (NPB) babesean, eta Europar Batasuneko finantza tresnen bidez kofinantzatu dira.

Nekazaritza Sailaren egungo programazioak laguntza lerro bat ezartzea aurreikusi du, ustiattegien egitura hobetzeko, ekoizpen prozesuetan teknologia berriak sartzeko, eta ekoizpenen osasuna eta kalitatea bermatzeko, jarduera iraunkor eta eraginkorra garatze aldera.

Laguntza lerro hau abian jartzeko, finantzaketa osoa foru funts propioekin egitea aurreikusi da, eta, beraz, beharrezkoa da oinarri arautzaile batzuk garatzea laguntza horiek emateko.

Hura garatzeko ezarritako arau esparrua Batzordearen abenduaren 14ko 2472/2022 (EB) Erregelamenduan kokatzen da. Erregelamendu horren bidez, nekazaritza eta basogintza sektoreetan eta landa eremuetan barne merkatuarekin bateragarriak diren zenbait laguntza kategoria deklaratu dira, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua aplikatuz. Zehazki, 14. artikuluan xedatzen da nola arautuko diren nekazaritza ekoizpen primarioarekin lotutako nekazaritza ustiattegietan inbertitzeko laguntzak.

Deialdia prestatzeko, kontuan hartu dira Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Legea, 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena eta Emakume Nekazarien Estatutuaren urriaren 15eko 8/2015 Legea.

Xedapen hori bat dator Foru Gobernu Kontseiluaren maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuaren 3. artikuluan ezarritako arauen kalitatearen eta erregulazio onaren printzipioekin.

Horren ondorioz, Nekazaritza Saileko foru diputatuak proposatu eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran aztertu ondoren, honako hau

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onespina ematea foru dekretu honen eranskinean ezarritako nekazaritzako ustiattegietan inbertsioak egiteko laguntzetarako oinarri arautzaileei.

Bigarrena. Diruz lagun daitezkeen inbertsioen gehieneko zenbatekoak edo IV. eranskinean ezarritako moduluak onartzea, eta Nekazaritza Saileko titularrari baimena ematea horiek foru agindu bidez eguneratzeko.

Hirugarrena. Onespina ematea, 2023. urterako, dirulaguntza horietarako deialdiari, honako ezaugarri hauekin:

– Deialdiko laguntzen helburua: laguntza hauen oinarri arautzaileetako II. eranskinean ezarritako guztiak.

– Eskaerak aurkezteko epea: 20 egun baliiodun, foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Epearen azken eguna baliogabea bada, hurrengo egun baliodunean amaituko da.

– Eskaerak aurkezteko modua eta lekua:

Laguntza eskaerak formatu eta inprimaki normalizatuan aurkeztuko dira.

Aurkezteko lekuak hauek izango dira:

- Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorra.
- Vitoria-Gasteizko, Guardiako eta Laudioko Ogasun bulegoen erregistroa.
- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16.4 artikuluan ezarritako gainerako erregistroetatik edozein.
  - Laguntza- eta ordainketa-eskaerak telematikoki egin ahal izango dira, egoitza elektronikoen izapide espezifikoen bidez (<https://egoitza.araba.eus/eu/-/ayudas-inversiones-explotaciones-agrarias>).

Edonola ere, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 14.2 artikulua betez, honako hauek egoitza elektronikoen berariazko izapidearen bidez telematikoki aurkeztera behartuta daude: pertsona juridikoak; nortasun juridikorik gabeko erakundeak; elkargoko kide izatea nahitaezkoa duen jarduera profesional batean dihardutenak, jarduera horretan egiten dituzten izapideetarako, eta administrazioarekiko harremana elektronikoki izatera behartuta dagoen interesdun bat ordezkatzeko dutenak.

- Dirulaguntza jaso dezaketen inbertsioak onartzeko epea: 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera.
- Laguntza eskaerarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa: laguntza hauen oinarri arautzaileetan ezarritakoa (III. eranskina).
- Ordainketa eskaerarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa: laguntza hauen oinarri arautzaileetan ezarritakoa (19. artikulua).
- Puntuazioa eta lehentasun irizpideak: laguntza hauen oinarri arautzaileetan ezarritakoak (13. artikulua).
- Laguntzaren ehunekoa: oinarri arautzaileetan ezarritakoa (12. artikulua).
- Inbertsioen merkatu kostuen moduluak edo kalkulua eta xedearen arabera ezarritako gehieneko mugak: deialdi honetan onesten direnak.
- Kreditu erreserba: Arabako Foru Aldundiaren 2023rako gastuen aurrekontuko 40101. G/414400/77000405 "Inbertsioak nekazaritzako ustiategietan. 2023ko deialdia" partidaren kontura, guztira, 3.500.000,00 euroko zenbatekoa, urteka honela banatuta:
  - 2023: 1.500.000,00 euro.
  - 2024: 1.500.000,00 euro.
  - 2025: 500.000,00 euro.

Aipatutako kredituak zenbateko gehigarrien bidez handitu ahal izango dira, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 21. artikuluan ezarritako mugen barruan, bai eta aurrekontuko partidaren edozein arrazoiengatik gerta litekeen kreditu gehikuntzaren bidez ere.

Laugarrena. Deialdia ebatzi ondoren, aurrekontu partidaren kreditu gehikuntzarik izan bada emandako dirulaguntzei uko egin, deuseztatu edo zenbateko txikiagoak ordaindu direlako, eta aurrekontuko kreditua nahikoa izan ez delako zenbait eskabideri erantzun ez bazaie, kreditua eskabide horietan erabiliko da, ezarritako lehentasun irizpideei jarraikiz, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 21. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Bosgarrena. Nekazaritza Saileko foru diputatuari ahalmena ematea foru dekretu hau garatu eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapenak eman ditzan.

Xedapen indargabetzaile. Foru dekretu honen aurka egiten duten maila bereko edo behe-  
ragoko xedapen guztiak indargabetzea, eta, bereziki, Diputatuen Kontseiluaren apirilaren 12ko  
31/2016 Foru Dekretua.

Azken xedapena. Foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da  
indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko ekainaren 6a

*Diputatu nagusia*

*RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE*

*Nekazaritza foru diputatua*

*EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO*

*Nekazaritza zuzendaria*

*MARÍA ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE*

## ERANSKINA

ARABAKO LURRALDE HISTORIKOKO NEKAZARITZA USTIATEGIETAN  
INBERTSIOAK EGITEKO LAGUNTZEN OINARRI ARAUTZAILEAK

## 1. artikulua. Dirulaguntzaren xedea

Dekretu honen xedea da nekazaritza ustiategietan inbertsioak egiteko dirulaguntzak emateko oinarriak ezartzea Arabako Lurralde Historikoan.

Oinarri arautzaile hauen I. eranskinean jasotako definizioak aplikatuko zaizkio.

## 2. artikulua. Onuradunak

2.1 Laguntza hauen onuradunak izan daitezke nekazaritza ustiategien titularrak diren pertsona fisikoak edo juridikoak (elkarte ustiategiak), betiere oinarri arautzaile hauetan ezartzen diren baldintzak bete eta konpromisoak hartzen badituzte.

2.2 Laguntza honen ondorioetarako, sozietate zibilak, ondasunen erkidegoak eta jaraunspen erkidegoak nortasun juridikodun erakundetzat hartzen dira.

2.3 Izatezko bikoteak ezkondukaoen parekoak izango dira, maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoarekin bat etorriz.

## 3. artikulua. Onuradunen betekizunak

Laguntza hauek onuradunek baldintza hauek bete beharko dituzte:

## 3.1 Oro har

- a) Nekazaritza ustiategi baten titularra izatea.
- b) PFEZaren edo, hala badagokio, sozietateen gaineko zergaren aitorpena aurkeztu izana laguntza eskatzen den ekitaldiaren aurrekoan.
- c) Gizarte Segurantzaren erregimen egokian alta emanda egotea, nekazaritzako jarduera zein den.
- d) Laguntza eman baino lehen, Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak eta zerga betebeharren ordainketa egunean edukitzea. Sozietate zibilaren, ondasun erkidegoaren, eraldaketarako nekazaritza sozietatearen eta titulartasun partekatuko erakundeen kasuan, egoera hori egiaztatu beharko da, bai sozietatearena, bai bazkideena edo erkideena, Gizarte Segurantzarekiko betebeharrei dagokienez.

Ondorio horietarako, Diputatuen Kontseiluaren 58/2004 Foru Dekretuan, urriaren 5ekoan, zeinak aldatzen baitu Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 11ko 18/1997 Foru Dekretua, Dirulaguntzen onuradunek zerga betebeharrak betetzen dituztela egiaztatzeko prozedurari eta egiaztapen horren salbuespen araubideari buruzkoan, ezarritakoa aplikatuko da.

- e) Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 12. artikuluan onuradun izateko ezarritako baldintzak betetzea.
- f) ETEen (mikroenpresak, enpresa txiki eta ertainak) baldintza betetzea, Batzordearen 2022/2472 Erregelamenduan, 2022ko abenduaren 14koan (I. eranskineko 1. art. eta 2.1. art.), jasotzen den definizioaren arabera.

### 3.2 Titularra pertsona fisikoa edo titulartasun partekatutako erakunde bat diren ustiategiak

#### 3.2.1 Eskatzaileek berariazko baldintza hauek ere bete beharko dituzte:

- a) 18 urtetik gorakoa eta 65 urtetik beherakoa izatea laguntza eskabidea aurkezten duenean.
- b) Nagusiki nekazari diharduen pertsona (NNP) izatea.
- c) Eskaerak aurkezteko epea amaitutakoan, gaitasun profesional edo lanbide gaitasun egokia izan beharko du. Horretarako, egiaztagiri hautako bat aurkeztu beharko du:
  - Nekazaritza arloko titulu akademikoa, gutxienez, bigarren mailako lanbide heziketako mailakoa.
  - Nekazaritza arloko erdi edo goi mailako heziketa zikloa.
  - Bi urte baino gehiagoko esperientzia nekazaritza jardueran. Hori egiaztatzeko, Gizarte Segurantzak egindako agiri bat aurkeztu beharko du edo Nekazaritza Ustiategien Erregistroko datuen arabera (NUE) egiaztatuko da.
  - Gutxienez, 200 orduko prestakuntza nekazaritza arloan, zentro homologatuetan, bere ustiategiarekin lotuta dagoena. Nolanahi ere laguntzaren unitate kudeatzaileak baloratuko du.
- d) Nekazaritza jardueratik etorritako erretiro pentsiorik, ezintasun absolutu edo ezintasun osoko pentsiorik ez jasotzea.

#### 3.2.2 Laguntza honen ondorioetarako, orain aipatuko diren eskatzaileek 3.1. artikuluko baldintza orokorrak (d) eta e) ataletan adierazitakoa salbu, eta artikuluko berariazko baldintzak (a) eta d) ataletan adierazitakoak salbu) betetzen dituztela hartuko da:

- Instalazio-prozesuan dauden pertsonak, M06.1, PDR 2015-2020 “Nekazari gazteek enpresak sortzea” izeneko neurriaren bidez, edo 6961.1 “Gazteak nekazaritza sektorean lanean hastea” PEPAC 2023-2027 esku-hartzearen bidez.

Esku-hartze honen bidez instalatu aurretik, erakunde publiko sustatzaile batek legez eraturako nekazaritza enpresen hazitegi batean, hazitegi horren bulegoan dauden bitartean, prestatzen diren gazteak.

Baldintza orokorrak eta berariazko baldintza guztiak bete beharko dituzte instalazio prozesua amaitu aurretik, beren enpresa planaren arabera.

- Sektorean sartzen diren beste pertsona batzuk. Horrez gain, 3.1.a) artikuluan ezarritako baldintza bete beharko dute laguntza eskaera aurkezten duten unean, eta enpresa plana aurkeztu. Bestalde, Gaztenek programari monitorizatzea eska diezaiokete, eta sartzen diren unetik laguntza horren onuradun izan daitezke, 3 urteko epean laguntza eskaeran adierazten diren baldintza orokor eta berariazko guztiak egiaztatzen badituzte.

Adierazitako epeetan ez badira egiaztatzen, jaso dituzten laguntzak itzuli beharko dituzte, legez dagozkien interesak barne.

3.2.3 Titulartasun partekatuko entitateen kasuan, eta nekazaritza ustiatuegien titulartasun partekatuari buruzko urriaren 4ko 35/2011 Legearen 5. eta 11. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik, kideetako batek azken bi ekitaldietako pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren (PFEZ) aitopenean oraindik nekazaritza etekinak egotzi ez baditu, joko da NNP dela beste kideak baldintza hori betetzen badu.

### 3.3 Titularra pertsona juridikoa den ustiatuegiak (elkarte ustiatuegiak)

Elkartze ustiatuegiek behean ageri diren izaera juridikoetako bat hartu beharko dute eta, gainera, izaera orokorreaz azaldutako betekizunez gain, talde bakoitzean adierazitakoak bete beharko dituzte.

3.2.2. artikuluan adierazitako eskatzaileak baldintza orokorrak eta berariazkoak betetzen dituzten kideetat hartuko dira, artikuluan horretan adierazitako salbuespenak eta betetzeko epeak ere kontuan hartuz.

1. TALDEA.- Lan sozietateak (S.A.L.-S.L.L.), sozietate anonimoak (S.A.), sozietate mugatuak (S.L.), sozietate kooperatiboak (S. Coop.) edo bestelako merkataritza sozietateak, ondasun erkidegoak (C.B.), jaraunspen erkidegoak, sozietate zibilak (S.C.), luraren erkidego ustiapenerako kooperatiba (C.E.C.A.), eraldaketako nekazaritza sozietatea (S.A.T.) eta lan elkartuko kooperatibak:

- a) Bazkideen ehuneko 50ek gutxienez 3.2. artikuluan ezarritako baldintzak bete beharko dituzte, eta haien kapital sozialaren edo banaketa kuotaren ehuneko 50 gutxienez NNP diren kideena izan beharko da.
- b) Estatutuetan edo batzar orokorren erabakiz, ondokoa xedatu beharko da: titulurik eskualdatuz gero, bermatuta geratu beharko da, konpromiso aldiaren, behintzat, kideen ehuneko 50ek, gutxienez, NNP izan beharko dutela eta sozietatearen kapitalaren edo banaketa kuotaren ehuneko 50, gutxienez, NNP diren kideena edo bazkideena izan beharko dela, salbu eta ondasun erkidegoak, sozietate zibilak eta jaraunspen erkidegoak.
- c) Bazkideen partaidetzek edo akzioek izendunak izan beharko dute, eta sozietateak estatutuetan duen xede eksklusiboa izango da nekazaritza jarduera garatzea, eta hala badagokio, nekazaritza jarduera osagarria ere bai.
- d) Agiri publikoaren bidez erabakia egon beharko dute, sozietate zibilak, jaraunspen erkidegoak eta ondasun erkidegoak barne. Eraketaren agiri horretan, besteak beste, zehaztuta geratuko dira izaera juridikoa, gutxienezko iraupena, kapital sozialaren eraketa

eta kideek kudeaketan duten partaidetza. Horrela, laguntza emateko, Administrazioarekin hartutako konpromisoari egokituko dira.

- e) Jaraunspen erkidegoetan eta ondasun erkidegoetan, indibisio ituna egon beharko du, gutxienez sei urtez.
- f) Kooperatibek Euskal Autonomia Erkidegoko Kooperatiben Erregistroan izena emanda egon beharko dute.

## 2. TALDEA.- Makinak elkarlanean erabiltzeko kooperatibak (NMEK).

- a) Nekazaritzako ustiategien titularrek osatuko dituzte, eta pertsona fisikoak zein juridikoak izan ahalko dira, baina inork ezingo du parte hartu kontratista, kapitalista edo antzeko izaeraz.
- b) Kooperatibisten ehuneko 75ek gutxienez 3.1. artikuluan ezarritako baldintzak bete beharko dituzte, eta hala badagokie, 3.2. artikuluan ezarritakoak. Gutxienez, haien kapital sozialaren edo banaketa kuotaren ehuneko 75 NNP diren kideena izan beharko da.
- c) Estatutuetan edo batzar nagusiaren erabakiaz, honako hau xedatu beharko da: titulurik eskualdatuz gero, bermatuta geratu beharko da, konpromiso aldian, gutxienez kooperatibisten ehuneko 75ek nagusiki nekazariak izan beharko duela eta gutxienez sozietatearen kapitalaren edo banaketa kuotaren ehuneko 75ek nagusiki nekazariak diren kideena edo bazkideena izan beharko duela.
- d) Euskal Autonomia Erkidegoko Kooperatiben Erregistroan izena emanda egongo dira.
- e) Eskatutako inbertsioak kooperatibistek erabiltzeko izango dira. Makinen kasuan, hirugarren pertsonentzako lanak egitea onartzen da, zerbitzu horien balioa NMEKren guztizko fakturazioaren zenbatekoaren ehuneko 40 baino gehiago ez bada.
- f) Ustiategi bazkideek, eskatutako inbertsioaren balioaren ehuneko 20 ordainduta izango dute, kapital sozial gisa.
- g) Ez da laguntzaren onuradun izango pertsona fisiko bat bere izenean duen NMEK, baldin eta pertsona hori elkarte bateko kide bada.
- h) Bere bazkideen zerbitzura makinen atal bat duten lehen mailako kooperatibak, hala jasotzen bada estatutuetan, NMEK-tzat hartuko dira.

## 4. artikulua. Nekazaritza ustiategiaren inguruko baldintzak

Laguntza eskatzen duen titularraren ustiapenak baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) Arabako Lurralde Historikoko Nekazaritzako Ustiategien Erregistroan izena emanda egotea.
- b) Landaretza-osasunaren, animalien identifikazio eta osasunaren eta animalien ongizatearen gainean indarren den araudia betetzea.

- c) Ustiatzean gauzatutako nekazaritza jarduera zorrotzek, gutxienez, lehen mailako Nekazaritzako Lan Unitate (NLU) bat xurgatuko dute urtero.

Nekazaritza jardueran lanean hasten diren pertsonen kasuan, NLUak enpresa planean jasotakoaren arabera egingo zenbatespena.

NLUak eta nekazaritza ustiatze baten gainerako parametro ekonomikoak kalkulatzeko, Garapen Ekonomiko eta Lehiakortasun Saileko sailburuaren indarreko aginduan ezarritako metodoa erabiliko da. Agindu horren bidez, ekoizpen orientazioen eta modulu objektiboen marjina gordin eta garbiak finkatzen dira, nekazaritzako lan unitateak zehazteko. Halaber, PFEZ edota ustiapenaren emaitzen kontuan ere kontuan har daitezke.

Garatuko den jarduera NLUak baloratzeko dagokion xedapenean ez bada jasotzen, laguntza kudeatzen duen unitateak balioespena egingo du. Horretarako, antzeko jardueri buruz eskuragarri dauden datuak kontuan hartuko dira.

#### 5. artikulua. Inbertsioak onartzeko betekizun orokorrak

##### 5.1. Diruz lagundu ahal izateko, inbertsioak helburu hauetarako bidera daitezke:

- a) Ustiapenen ekoizpena merkatuaren beharrei egokitzeko bideratuta daudenak, uztaren ekoizpenen kalitatea eta biltegiatzea hobetzen laguntzen dutenak bereziki, produktuaren kalitatea hobetzeko.
- b) Enpresa kudeaketa eta ustiapenen errentagarritasuna hobetzeko direnak, ekoizpen kostuak murrizten, gastu energetikoa murrizten eta ekoizpenak handitzen laguntzen dutenak bereziki.
- c) Ustiapenen ekoizteko gaitasuna handitzeko bideratuta daudenak, ustiapenaren erabilera erraztu eta lanaren produktibitatea eta lurzoruen kudeaketa hobetzen duten makina eta instalazioena bereziki.
- d) Ingurumenaren jasagarritasuna hobetzeko direnak, ekoizpen ekologiko eta integratuko sistemak jasotzen dituzten bereziki, eta nekazaritza eta abeltzaintza ustiatze gaitako hondakinen tratamenduan eta biltegiatzean hobekuntzak jasotzen dituztenak. Halaber, atmosferara egindako berotegi efektuko gasen igorpena murriztea eta ongarrien erabileraren eraginkortasuna hobetzea sustatuko da, lurzoruen kudeaketan jasagarritasuna errazteko.
- e) Animalien higiena eta ongizatea, elikagaien segurtasuna, ekoizpenen trazabilitatea eta laneko segurtasuna hobetzeko direnak, arlo horietan erkidegoan dauden arau berriak betetzeari erreparatzen diotenak bereziki.
- f) Inbertsio berritzaileak, hala nola, bioenergia edota energia berriztagarriak ezartzea, ustiapenetan kostu energetikoak murrizteko, eta Informazioaren eta Komunikazioen Teknologien (IKT) erabilera.
- g) Natura hondamendiek, epizootiek, landareen gaixotasun larriek kaltetutako edo ezbeharren ondorioz hondatutako ekoizpen baliabideak berritzeko egindako inbertsioak.



h) Ureztatze instalazioekin lotutako inbertsioak.

5.2. Horrez gain, inbertsioek baldintza orokor hauek bete beharko dituzte:

- a) Teknikoki egokiak izatea nekazaritza edo abeltzaintza ustiategiaren orokortasunerako.
- b) Egiteko dauden inbertsioak Arabako Lurralde Historikoko lursailetan, ondasun higiezinetan eta instalazioetan egingo dira. Salbuespen gisa, diruz lagun daitezke eraikinak ez diren inbertsioak eta mugako udalerrri bateko zati batean kokatuta daudenak. Halakoetan, instalazioa egiten den lurzatiek Arabako Nekazaritza Ustiategien Erregistroan behar bezala erregistratuta dagoen ustiapen batekin lotuta egon beharko dute, ustiategian inbertsioa egiteko konpromisoa hartuta dagoen aldian.
- c) Deialdi bakoitzean adierazten den diruz lagun daitezkeen inbertsioak onartzeko epea baino lehen hasita ez egotea, salbu eta azterlan teknikoak, proiektuak, proiektuen ordainsariak eta eskatutako inbertsioari lotuta dauden beste batzuk, horiek lehenago egin ahal izango baitira.

Inbertsioak onartzeko epean inbertsioak gauzatze hutsak ez du esan nahi diruz lagunduko direnik, eta ustiategiak dagokion laguntza-eskaera egin beharko du.

- d) Hondamendi naturalek, epizootiek, landare-gaixotasun larriek edo istripuek eragindako inbertsioak birjartzeagatik egindako inbertsioak eta gastuak diruz lagun daitezkeen inbertsioak onartzeko epea baino lehen hasi ahal izango dira, eta gorabehera horien berri eman beharko zaio Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailari, diruz lagun daitezkeen inbertsioa edota gastua egiten hasi aurretik.

Inbertsioak hasi direla jakinarazte hutsak, diruz lagun daitezkeen inbertsioak onartzeko epea baino lehen, ez du esan nahi hasitako inbertsioa diruz lagunduko denik. Eragindako ustiategiak dagokion laguntza-eskaera egin beharko du, eta oinarri hauetan eta dagokion deialdian xedatutakoaren arabera aztertuko da.

- e) Oinarri arautzaile hauen bidez diruz lagun daitezkeen eraikuntza proiektuek indarreko arautegia bete beharko dute, arlo hauetan: ingurumena, higiena, osasun eta laneko segurtasuna, animalien osasuna eta ongizatea. Arautegia dagokion proiektuan jaso beharko da, eta hirigintzako legediari egokitu. Nolanahi ere, egiteko dauden inbertsioek jadanik udal lizentzia badute, baldintza horiek betetzen dituztela ulertuko da.

6. artikulua. Inbertsioen berariazko betekizunak eta mugak

Onar daitezkeen inbertsioen gastuak, oinarri arautzaile hauetan ezarritako inbertsioagatiko gutxieneko eta helburuengatiko gehieneko muga arabera, berariazko baldintza hauek bete beharko dira onartzeko:

6.1 Makinak eta makina ekipamenduak

Halakotzat joko da traktoreak, nekazaritzako lanabesak, uzta biltzeko makinak, atoiak (bai eta azienda garraiartzekoak ere), tangak eta nekazaritzarako gainerako makinak eskuratzea, gailu osagarriak ere bai.

Makina berriak erosten lagunduko da, inoiz ere ez bigarren eskukoak eskuratzen, eta makina berrien ezaugarriek bat etorri beharko dute ustiategiko beharrezanekin.

Laguntza jasoko duten makinak, nahitaezkoa denean, Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza Makinen Erregistro Ofizialean inskribatu beharko dira.

Arrastatuz edo eskegita eramaten diren makinek dirulaguntza jaso ahal izateko, aurretik aipatutako erregistroan bere izenean inskribatuta dauden makinak izan beharko ditu ustiategiak.

Diruz lagun daiteke makinaren berritzea, kasu hauetan: erabateko ezbeharretan, matxura konponezinetan edo istripuetan, betiere erosten dena aldatutakoaren berdina bada. Horrela, ustiategiak duen ekoizteko gaitasunari eutsiko zaio, kaltetutako makinaren konpromiso aldiaren barruan egiten bada. Kaltetutako makinak Nekazaritza Makinen Erregistro Ofizialean izena emanda egon behar izango balu, baja eman beharko zaio, desegin edo ez erabilgarri geratu delako.

Ibiltzen den nekazaritza makinaren aldaketa ere diruz lagun daiteke, konpromiso aldiaren barruan, zaharkituta badago, eta hobekuntza teknologikoak ekartzeaz gain, ustiategiaren ekoizpen ereduarekin ere bat badatoz. Dagokion dirulaguntza bete gabeko konpromiso aldiaren arabera murriztuko da.

Ordezkatzeagatik inbertsio bat diruz lagundu ahal izateko, horren justifikazio teknikoak aurkeztu beharko da. Horrela, aurrekoak ustiategiaren ekoizpen ereduari kalte egiten ziola eta berriak ustiategiaren ekoizteko gaitasuna nabarmen handituko duela bermatu beharko du.

## 6.2 Nekazaritza eraikinak eta instalazioak

Eraikuntzek landa eremutat jotakoetan egon beharko dute, beste lekuren batean kokatu behar izateko arrazoirik izan ezean.

Laguntza horren bidez eraikitako edo berritutako eraikinek, behin inbertsioa amaituta, aseguru bat izan beharko dute konpromisoa hartutako urteetan. Aseguru horrek, gutxienez, sute kalteak barne hartu beharko ditu.

Honako inbertsio hauek lagundu ahalko dira diruz:

- a) Makinen biltegiak eta ekoizkinak, siloak, abereentzako bizitokiak eta instalazio osagarriak eraikitzeke, handitzeke edo eraberritzeke inbertsioak. Horien barrukoak dira animalien higiene eta osasun baldintzak eta animalien ongizatea hobetzeko inbertsioak, bai eta paseorako eta lasterketetarako zaldiak erosteko inbertsioak ere (betiere, halakoen hazkuntzan erabiltzen badira eta gisa horretako ustiategientzat indarrean dagoen araudia betetzen badute, zaintzarako direnak izan ezik), honakoa aintzat hartuta:
  - Nekazaritzako erabilera duten biltegien eskuraketa bakar-bakarrik diruz lagunduko da biltegiak sustatzaileei erosten zaizkienean, eraiki ondoren. Hegalaren balioa eta lurzoruaren balioa behar bezala bereizita egon beharko dira proiektuan.
  - Biltegien eraikitzea, eskuraketa eta handitzea diruz lagundu ahalko dira solairuko 150 m<sup>2</sup> baino gehiagoko azalera okupatua badute, ustiategiaren nekazaritza jarduerara garatzeko gai badira, eta nekazaritza makinak kanpotik sartzeko sarbide egokia badute.

Frutikultura eta baratze zaintza ustiatuegien kasuan, gutxienez, 90 m<sup>2</sup>-ko azalera izan beharko dute, aurretik adierazitako ezaugarriak barne.

Zolata jartzea, estalkia aldatzea, egitura aldaketa eta obra handiko baimena eskatzen duten biltegien berritzeak. Diruz lagundu ahalko dira 150 m<sup>2</sup> baino gehiagoko azalera okupatua duten eraikinetan eragiten dutenak bakarrik. Baratzezaintza edota frutikultura ustiatuegien kasuan, berriz, 90 m<sup>2</sup> baino gehiagoko azalera izan beharko dute, betiere azalerari, gaitasunari eta sarbideari buruzko baldintzak betetzen badituzte.

- b) Ustiatuegiko nekazaritza eta abeltzaintzako instalazioetan, hobekuntza teknologikoak txertatzeko inbertsioak, hala nola, animaliak jezteko ekipoak, hozteko andelak eta beste batzuk, eta ustiatuegiaren barruko ortuariak eta fruituak hozteko eta kontserbatzeko instalazioak, olio ateratzeko ekipoak, erregai gisa erabiltzeko, erregai hori erabiltzeko makinak aldaketa eta bestelakoak. Horiek guztiak berriak izan beharko dute.
- c) Haragitarako behi azidaren abeltzaintzako ustiatuegiak handitzeko inbertsioak, azidaren gizentzeko ziklo osoa gauzatzea helburu dutenak.
- d) Mindak biltegiatzeko poltsak edo material malguko tangak instalatzeko inbertsioak (lursaila prestatu, itxi eta beste elementu osagarri batzuk jartzekoak kontuan hartuta). Inbertsio horiek ezin dira, inola ere, herri administrazioaren ekimenenez sustatutakoak izan, nekazaritza mindak biltegiatu, tratatu, birziklatu edo beste erabilera batzuk kudeatzeko helburuz nitratoen eraso jaso dezaketen eremuetan, Arabako Lurralde Historikokoaren barruan.
- e) Ekoizlearen biltegian ekoizkina maneiatzeko eta kontserbatzeko egiten diren berariazko inbertsioak.
- f) Tunelak, berotegiak, berokuntza sistemak eta tantakako edo mikrodifusio bidezko ureztapen ekipoak instalatzeko inbertsioak, eta hortoflorikultura jarduerak garatzeko beharrezkoak direnak.
- g) Garaztagailuak jartzea lurzatietan, bai tantakakoak bai ihintadura bidezkoak, eta garaztagailu horiek automatizatzea, uraren erabilera eraginkorragoak izan dadin Europako arautegian eta era horretako inbertsioetarako Estatuko Esparruan ezarritako xedapen komunak betetzeko.

### 6.3 Zurezko laboreak landatzea

Landaketa ezarri, arbola landareak erosi, eusteko egiturak eskuratu eta fruta zuhaixken, fruta arbolen nahiz boilur landareen landaketa babesteko sistemak aintzat eskuratzea hartzen dira barne laguntza lerro honetan.

Baimendutako mintegietan hartutako landareak landatzea baino ez da onartuko.

Landaketak diruz lagundu ahal izateko, bete beharreko baldintzak ezarri ahalko ditu Nekazaritza Sailak.

Ez dira bateragarriak izango Nekazaritza Sailak kontzeptu berarekin emandako beste laguntza batzuekin.

#### 6.4 Onibarrak egokitzea

Diruz lagungarriak izan daitezke belardiak eraldatzeko, itxiturak egiteko, drainatzeak egiteko, lanak errazteko helburuz, oztopoak kentzeko eta soroak modu iraunkorrean egokitzeko inbertsioak.

Arabako Foru Aldundiko Bideen Erregistroan inskribatutako landa bideak babesteko eremuetan eragina duten lursailen itxiturari dagokionez, Arabako Lurralde Historikoko Landa bideen erabilera, artapena eta zaintzari buruzko otsailaren 13ko 6/1995 Legeak dioenari men egin beharko zaio.

#### 6.5 Ekipamendu informatikoa eta geolokalizazio sistema

Diruz lagungarriak izan daitezke ordenagailuetan eta informazio eta komunikazio sistema berriei egokituta dauden ekipamendu periferikoetan egindako inbertsioak, besteak beste, geolokalizazio sistemak, mapaketa sistemak, lan aldakor eta komunikazio sistemak barne; baita nekazaritza ustiategien jarduerarekin lotutako berariazko programetan egindakoak ere.

Diruz lagundutako ekipamendu edota informatika programa berriek ezingo dute jaso aldatzeagatiko laguntza, gutxienez, hiru urteko epean.

#### 6.6 Ustiategirako abereak erostea

Abereak eskuratzea besterik ez da diruz lagunduko, epizootiek, suteek, hondamendi naturalek edo ezinbestekoek kaltetutako nekazaritza ekoizpenaren ahalmena leheneratzeko, betiere ustiategiaren ahalmen horren ehuneko 50etik gora galdu bada. Agintari publiko eskudunek aitortpen ofiziala egitearen menpe egongo da.

Animalien alta eman beharko da Arabako Foru Aldundiko Nekazaritzako Ustiategien Erregistro Orokorrean (NUEO).

#### 6.7 Bioenergiaren edota energia berriztagarrien ekoizpena

Diruz lagungarriak izan daitezke energia termiko eta elektrikoa ekoizteko ekipamenduetan egindako inbertsioak, ustiategian bakarrik erabiltzekoak, haren ekoizteko beharrei aurre egiteko; betiere eraginkortasun estandarrak betetzen badituzte.

#### 6.8 Inbertsioei lotutako kostu orokorrak

Diruz lagungarriak izan daitezke inbertsio jakin bati loturik dauden azterketa tekniko, proiektu eta antzekoen ziozko ordainsari gisa egindako gastuak.

6.9 Istripu baten ondorioz, ekoizteko baliabideak kaltetu edo gutxitu diren ustiategietan egindako inbertsioak.

Salbuespen gisa, diruz lagungarria izango da eragindako inbertsioen berregitea, natura hondamendi, epizootia, landare gaixotasun larriaren ondorioz edo bestelako istripu batengatik kaltetu badira.

Arrazoi horietako batzuen ondorioz ustiategien ekoizpen ondasunak kaltetzen badira, oinarri arautzaile hauek ezarritako berariazko baldintzetako batzuk betetzetik salbuetsiko dira, hala nola, onuradunari eta ustiategi motari dagozkionak. Horrela, dagokion laguntzaren deialdian ezari beharko dira edo ohiz kanpoko deialdi batean.

7. artikulua. Diruz lagungarriak ez diren gastuak eta inbertsioak

Dirulaguntzaren ondorioetarako, ez dira diruz lagungarritzat hartzen diruz lagun daitezkeen inbertsioak onartzeko epea baino lehen egindako gastuak, 5.2. artikuluan adierazitako salbuespenekin.

Oro har, laguntzen araubidetik kanpo geratzen dira gastu eta inbertsio hauek:

- a) Azaroaren 2ko 948/2021 Errege Dekretuarekin diruz lagunduta izan diren inbertsioak. Dekretu horren bidez, nekazaritzaren eta abeltzaintzaren iraunkortasuna eta lehiakortasuna bultzatzeko planaren (111) barruan inbertsio proiektuak gauzatzeko estatu laguntzak emateko oinarri arautzaileak ezartzen dira, Berreskuratze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan.
- b) Ezkontideen, lehen eta bigarren mailako odol ahaidetasuneko senideak, edo ezkontza ahaidetasuneko lehen mailako senideen arteko ondasunen eskualdaketak, eta ustiategi bereko bazkideen artean egindakoak.
- c) Belardira eraldatzekoetan, ez dira diruz lagunduko hazi, ongari eta antzekoetan egindako gastuak.
- d) Nekazaritza ekoizpenerako eskubideen erosketa eta laguntza eskubideak.
- e) Basoak kudeatzeko planak ezartzeko kostuak.
- f) Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZ), beste edozein zerga, tasa, berandutza interesak eta inbertsioaren ondorioz kontratatutako aseguruak.
- g) Finantza gastuak eta banku bermeak.
- h) Erosteke aukera duten finantza errentamenduen kasuan, zenbait gastu, hala nola, errentatzailearen marjina, interesak berriz finantzatzeko kostuak, gastu orokorrak eta aseguru gastuak.
- i) Norberaren eskulana, eskatutako inbertsioak gauzatzeko erabilitakoa, eta zerbitzu gisa, gauzazko zuzeneko beste ekarpen batzuk.
- j) Nekazaritza enpresaren gastu orokorrak.

- k) Konpromiso aldiaren barruan diruz lagundutako inbertsioen berritzea edo ordezkatzeta, 6. artikuluan jasotzen diren salbuespenekin.
- l) Animalien erosketa, natura hondamendi, epizootia edo istripuek kaltetutako ustiatagietan izan ezik.
- m) Urteko landareak eta haien landatzea.
- n) Baso mintegiei lotutako inbertsioak.
- o) Lurralde kapitala eskuratzeko inbertsioak.
- p) Etxebizitza eraikitzea, berritzea, birgaitzea edo eskuratzeta.
- q) Eraldaketa instalazioetan, produktuen gauzatze eta ontziratzean, haien komertzializazioan eta sustapenean, akuikulturaren, nekazaritza-turismoan, nekazaritzakoa ez den dibertsifikazioan, energia berriztagarrietan egindako inbertsioak, ustiapenaren ekoizpen prozesuaren edo autokontsumoaren beharrei aurre egiteko bakarrik erabiltzen diren energia berriztagarrietan, basogintzako makinetan, ikerketa proiektuetan eta animalien gaixotasunen desagerraraztean egindako inbertsioak.
- r) Mindak biltegiratu, tratatu, birziklatu edo beste erabilera batzuk kudeatzeko ekimen publikoei lotutako ekimenak, nitratoen erasoak jaso dezaketen eremuetan, Arabako Lurralde Historikoaren barruan.
- s) Mahastiak hazi eta horiek landatzeko lursailak egokitzeko inbertsioak; horiek, une bakoitzean dagoen berriazko araudiari men egin beharko diote.
- t) Ureztatzaileen elkarteek eta beste herri erakunde batzuek ureztapen instalazioetan egindako inbertsioak, ustiategi bateko lursaila ureztatzeko inbertsioaz haragokoak direnean.
- u) Fruta eta barazki ekoizleen elkarte bateko kideen ustiapenetan eragiten duten diruz lagun daitezkeen inbertsioak, beraien funts operatiboekin sustatu eta finantzatzeko badira, eta dirulaguntza jasotzeko aurkeztu badira.
- v) Ekipo eta/edo programa informatiko zaharrak ordezteak edo berriak jartzea, azken laguntza jaso 3 urteko epea igaro baino lehen.
- w) Xede bakoitzerako ezarritako gehieneko muga gainditzen duen inbertsioaren zenbatekoa, 11. artikuluari jarraiki zehaztutakoa.
- x) Garraiobide gisa bakarrik erabiltzen diren ibilgailu automotrizen gaineko inbertsioak, nekazaritzarako bakarrik erabiltzen badira ere.
- y) Suntsikorren berritzea (plastikoak, sareak, substratuak eta abar).
- z) Bigarren eskuko makinak, instalazioak eta nekazaritza-abeltzaintza ekipamenduak eskuratzeta.

- aa) Zaldi jarduera osagarriak garatzeko inbertsioak (apopilotza, zaldi gaineko paseoak eta abar).
- bb) SIGPAC (nekazaritzako lursailen informazio geografikoko sistema) erabiltzen duten lursailen eraldaketa, "lur goldagarria" erabileratik "larre" erabilerara.
- cc) Belardia birlandatzea.
- dd) Ez da diruz lagunduko aurreko deialdietako ebazpenez diruz lagundutako ondasun bera edota ondasun baten gainean lagundutako jarduketa bera.

#### 8. artikulua. Onuradunen konpromisoak eta betebeharrak.

Laguntzen onuradunek oinarri arautzaile hauetan ezarritako betebeharrak eta hartutako konpromiso guztiak bete beharko dituzte; baita laguntza emateko ebazpenean ezarritakoak ere.

##### 8.1 Konpromisoak

Egiten diren inbertsioek konpromiso hauek ekarriko dituzte:

- a) Eraikin edo instalazio finkeko kasuan, inbertsioek 10 urtean jardunean egon beharko dute ustiategi onuradunaren zerbitzuan laguntza eman denetik, laguntza eman zen edukitze araubide berdinean edo jabetzan. Aldi horretan, sute kalteak gutxienez barne hartzen dituen aseguru bat izan beharko du eraikinak.
- b) Nekazaritzako makinetan edo eraikinak ez diren bestelakoetan inbertsioak egiten badira, gutxienez 7 urtez aktiboan izan, jabetzan eta ustiatagia erabiltzeko, Nekazaritzako Makinen Erregistroan inskribatzen denetik edo, erregistroan inskribatu behar ez diren inbertsioetan, fakturaren egunetik.
- c) Finantza errentamenduko kontratu baten bidez makina edo ekipamendu berriak eskuratzen diren kasuetan, erosteko eskubidea erabiltzea errentamendua amaitutakoan. Dena den, gehienez, 7 urtekoa izan daiteke.
- d) Inbertsio plan bat gauzatzea laguntza emateko ebazpenean adierazten zaien gehieneko aldira, justifikatutako arrazoiengatik eman daitekeen luzapena gorabehera.
- e) Nortasun juridikoa duen beste erakunde batean integraztearen ondorioz, hartutako konpromisoak oraindik indarrean dituen laguntza bat jaso duen ustiategiaren titulartasuna aldatzen bada, nortasun juridikoa aldatu delako, erretiroa dela eta jarduera utzi delako, edo behar bezala justifikatutako beste arrazoi batengatik, hartutako konpromisoak titular berriaren alde subrogatu ahalko dira, aurrekoari laguntzak jasotzeko eskatu zizkioten baldintzak bete eta berariaz bere gain hartzen baditu, konpromiso aldira amaitu arte. Ustiategiak diruz lagundutako inbertsioen zuzeneko aprobetxamendua egin beharko du.

Hori guztia Nekazaritza Saileko titularraren foru agindu bidez baimena lortu ondoren.

##### 8.2 Betebeharrak

Oro har, laguntzen onuradunek honako betebeharrak izango dituzte:

- a) Emandako dirulaguntza onartzea eta, zer xede zehatzetarako eman dieten, hartarako baliatzea, laguntzak esleitzeko ebazpenean ezarritako baldintzen arabera. Laguntzaren esleipenaren jakinarazpena 15 egun balioduneko epean onuradunak ez badio dirulaguntzari berariaz eta idatziz uko egiten, onartu egin duela ulertuko da.
- b) Konpromiso aldiaren zehar gutxieneko baldintzak mantentzea, 3. artikuluan ezarritako NNP izaerari dagokionez.
- c) Laguntza emateko oinarritzen hartzen den NLUen gutxieneko kopurua mantentzea konpromiso aldiaren zehar.
- d) Laguntza laborantza azalera batekin lotuta badago (10. artikuluan aipatutakoak), konpromiso aldiaren zehar mantendu beharko da, dirulaguntza kalkulatu zuten kopuru berean, edo dirulaguntza lortzeko eskatutako gutxieneko kopuruan. Azalera hori ez bada mantentzen, ez betetzerik ez dagoela kontuan hartuko da onuradunak hala justifikatzen badu, eta kudeaketa unitateak onartzen badu.
- e) Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailak eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak, Euskal Autonomia Erkidegoko Erakunde Ordaintzaileak, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak eta eskumeneko beste organo batzuek foru dekretu honen babespean jasotako laguntzari buruz eskatzen dioten beste informazio ematea.
- f) Beharrezko kontrolak egitea ahalbidetzea, honako hauek egiaztatzeko: laguntza behar bezala eman eta garatzen ari dela, lagundutako inbertsioak egoki gauzatzen ari direla eta ondoren konpromisoari eusten zaiela.
- g) Jasotako funtsak zertan erabili diren egiaztatzen duten agiriak gordetzea, agiri elektronikoak barne, horiek guztiak egiaztatuta eta kontrolatu baitaitezke.
- h) Ustiatzea laborantza eta erabilera maila egokian mantentzea, konpromiso aldiaren zehar uzte zantzurik edo jarduera galdu den zantzurik agertu gabe.

#### 9. artikulua. Inbertsio plana

Proiektuan 250.000,00 euro baino gehiago inbertitu badira, laguntzaren kudeatzaileak beharrezkotzat jotzen badu, egin nahi diren inbertsioen azterketa aurkeztea exijitu ahal izango da. Azterketa hori teknikari homologatu batek idatzi beharko du, eta inbertsioak ekonomikoki justifikatuta daudela, bideragarriak direla, hobekuntza ekarriko dutela, eta ustiatzearen etekin orokorra handituko dela egiaztatuta beharko du.

Ustiatzei batek baino gehiagok inbertsio bera egin dezakete, geroago bat egiteko helbururik ez badute ere. Kasu horretan, ustiatzei bakoitzak bere eskaera izapidetu beharko du, dagokion inbertsioaren zatia kontuan hartuz.

06.1 Neurriaren eta 6961.1 Esku-hartzearen bidez instalazio prozesuan dauden pertsonen, eta sektorean lanean hasten diren pertsonen kasuan, inbertsioaren bideragarritasuna enpresa planaren bidez egiaztatuta geratuko da.



#### 10. artikulua. Kostuak neurtzea eta inbertsioak baloratzea

Inbertsioen diruz lagungarriak diren kostuak Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailak ezarritako eta bere webgunean argitaratutako balorazio moduluei egokituko dira. Era berean, diruz lagun daitezkeen aurrekontuei oinarri arautzaile hauen 11. artikuluan ezarritako gehieneko eta gutxieneko mugak aplikatuko zaizkie.

Eskatzaileak, eskatzen duen inbertsioaren aurrekontua edo proformako faktura aurkeztu beharko du. Horrela, diruz lagun daitezkeen gastutzat hartuko da gutxieneko zenbatekoa duen aurrekontua, aurkeztutako eskaintzan, edo moduluak aplikatuz ateratzen dena, edo, hala balego, onargarria den gehieneko inbertsio gastuaren muga.

Balorazio moduluetan jasotzen diren inbertsio eta gastuetarako nahikoa izango da proformako faktura bat aurkeztea.

Eskatutako gastu edo inbertsio batzuetarako ez badago modulurik, eta sektore publikoaren kontratuei buruzko indarreko legedian hornidura edo zerbitzu kontratu txikietarako ezarritako zenbatekoa ez badute gainditzen, proformako faktura bat aurkeztearekin nahikoa izango da. Zenbateko hori gainditzen bada, hornitzaile desberdinen hiru aurrekontu gutxienez aurkeztu beharko ditu, bere ezaugarri bereziak direla eta, merkatuan horiek egiten dituzten nahikoa enpresak ez badaude, edo ustiapenean, baldintza bereziengatik, ezaugarri jakin batzuk dituen inbertsioa egin behar bada salbu.

Diruz lagun daitezkeen inbertsioak onartzeko epea hasten denetik eskabideak aurkezteko azken egunera arte egiten diren gastu eta inbertsioen kasuan ere, gutxienez 3 aurrekontu aurkeztu beharko dira, aurreko paragrafoan aurreikusitako zenbatekoa gainditzen bada.

Aurkeztutako aurrekontuen artean aukeratzean, eragingarritasun eta ekonomia irizpideak aintzat hartuko dira; hala, hartutako erabakia bidezkotu beharko da eskaintza merkeena aukeratzan ez denean eta hura diruz laguntzen denean.

Kostuen neurritasunari buruzko irizpidea indartzeko, hainbat parametro ezarri dira makina mota batzuentzat, ustiategiaren azaleraren arabera.

Dirulaguntza hektarea kopuruaren arabera kalkulatzan bada, eta azaleraren gutxieneko muga badago, ustiapena muga horretara ez bada heltzen, inbertsioa ezingo da diruz lagundu.

##### 10.1 Traktoreetan inbertitzea

Nekazaritzako erabilera duten ustiategi estentsiboei dagokienez, diruz lagundu daitezkeen gehieneko potentziaren indizea hauxe da: 3 CV/ha lehorreko lurren Nekazaritzako Azalera Erabilgarria.

Diruz lagun daitezkeen gehieneko potentzia kalkulatzeko, 10 urte baino gutxiago dituzten ustiategiko traktoreak kontuan hartuko dira. Hamar urte horiek, Nekazaritzako Makinen Erregistroan erregistratu ziren lehen egunetik zenbatzen hasiko dira.

Abeltzaintza, basogintza edo baratzegintzako erabilera duten ustiategietan, bereziak direnez gero, ez dira aurreko mugak kontuan hartuko, baina era teknikoan arrazoituko da.

Traktoreak eskuratzen direnean, potentziaren indizea kalkulatzeko helburuz, labore azaleren honako baliokidetasun taula hau ezarri da:

- 1 ha lehorreko labore intentsibo = 2 ha lehorreko labore estentsibo.
- Mahastien 1 ha = Lehorreko labore estentsiboen 3 ha.
- 1 ha labore ureztatu = 5 ha lehorreko labore estentsibo.

#### 10.2 Zerealak biltzeko makinei lotutako inbertsioa

Zerealak biltzeko makinei lotutako inbertsioa diruz lagungarria izango da ustiategiak gutxienez 100 hektarea baditu zereala ereiteko, ustiategien erregistro eguneratuan jasotakoaren arabera.

Diruz lagun daitekeen gehieneko zenbatekoa izango da uzta biltzeko makina eta deialdi bakoitzerako indarrean dauden moduluen.

- 250 CV baino gutxiagoko uzta biltzeko makinak: Inbertsioa kalkulatzeko, aitortutako zereal hektarea bakoitza 800 euroekin biderkatuko da.
- 250 CV-ko edo gehiagoko uzta biltzeko makinak: inbertsioa kalkulatzeko, aitortutako zereal hektarea bakoitza 950 euroekin biderkatuko da.

#### 10.3 Lastoa edo bazka paketatzeko makinei lotutako inbertsioa

- Paka txikiko fardo makinak: diruz lagun daitekeen gehieneko zenbatekoa deialdi bakoitzaren indarreko moduluetan jasotzen dena izango da.
- Paka handiko fardo makinak: diruz lagun daitekeen gehieneko zenbatekoa deialdi bakoitzerako indarrean dagoen modulurena izango da, pertsona eskatzaileak ustiategien erregistro eguneratuan gutxienez 200 ha azalera badu, zereal eta belar laboreekin.

120 ha baino gehiagoko eta 200 ha baino gutxiagoko zereal eta belar ustiategietarako, diruz lagun daitekeen gehieneko zenbatekoa kalkulatzeko, modulua hektarea kopuruarekin biderkatuko da, eta gero, zati 200 egingo da.

- Fardo makinaren kasuan, diruz lagun daitezkeen gehieneko zenbatekoak izango dira deialdi bakoitzean fardo makina mota bakoitzerako indarrean dauden moduluenak.

#### 10.4 Mahatsa biltzeko makinei lotutako inbertsioa

- Mahatsak biltzeko makina arrastatua: diruz lagun daitekeen gehieneko zenbatekoa deialdi bakoitzerako indarrean dagoen modulurena izango da, pertsona eskatzaileak ustiategien erregistro eguneratuan gutxienez 30 ha azalera badu, besorako mahastietan.

15 ha baino gehiagoko eta 30 ha baino gutxiagoko besorako mahastiak dituzten ustiategietan, diruz lagun daitekeen gehieneko zenbatekoa kalkulatzeko, modulua hektarea kopuruarekin biderkatuko da, eta gero, zati 30 egingo da.

- Mahatsak biltzeko makina autopropultsatua: diruz lagun daitekeen gehieneko zenbatekoa deialdi bakoitzerako indarrean dagoen moduluarena izango da, pertsona eskatzaileak ustiatuegien erregistro eguneratuan gutxienez 45 ha azalera badu, besorako mahastietan.

30 ha baino gehiagoko eta 45 ha baino gutxiagoko besorako mahastiak dituzten ustiatuegietan, diruz lagun daitekeen gehieneko zenbatekoa kalkulatzeko, modulua hektarea kopuruarekin biderkatuko da, eta gero, zati 45 egingo da.

#### 10.5 Patatak biltzeko makinei lotutako inbertsioa

Patatak biltzeko makina autopropultsatua: diruz lagun daitekeen gehieneko zenbatekoa deialdi bakoitzerako indarrean dagoen moduluarena izango da, pertsona eskatzaileak ustiatuegien erregistro eguneratuan gutxienez 10 ha azalera badu, patata biltzeko ildo bat eta biko makinetarako.

5 ha baino gehiagoko eta 10 ha baino gutxiagoko azalera duten ustiatuegietan, aitortutako patata hektarea bakoitza 7.000,00 euroekin biderkatuko da diruz lagun daitekeen gehieneko zenbatekoa kalkulatzeko.

#### 10.6 Abereak eskuratzea eta istripuen ondorioz egindako inbertsioak

6.6. eta 6.9. artikuluetan jasotzen diren arrazoen ondorioz eskatutako inbertsioetarako, diruz lagun daitekeen aurrekontua kostuak neurketari eta xedearen arabera diruz lagun daitezkeen gehieneko mugei buruzko irizpide orokorrak kontuan hartuko dira.

Dirulaguntzaren eta aseguruaren konpentsazioaren arteko batura ezingo da izan inbertsioaren balioa baino handiagoa.

#### 11. artikulua. Gastu onargarriaren mugak

11.1 Helburu baten barruan urteroko egindako inbertsio guztien gehieneko gastu onargarria deialdi bakoitzean indarrean dauden moduluetan ezarritakoa izango da.

11.2 Urteroko diruz lagun daitekeen gehieneko zenbatekoa, inbertsioen gehieneko mugak kontuan hartuta, honako hau izango da, deialdian bestela xedatu ezean:

- Pertsona bakarrekoak: 125.000,00 euro.
- 5 kide edo gutxiagoko onuradunak (NMEKak izan ezik): 250.000,00 euro.  
Kide bakar bat bada NNP, gehieneko zenbatekoa 125.000,00 eurokoa da.
- 5 kide baino gehiagoko onuradunak eta 10 kide edo gutxiagoko NMEKak: 375.000,00 euro.
- 10 kide baino gehiagoko NMEKak: 500.000,00 euro.

Mugak hori salbuetsi daitezke aurrekontuak hori egiteko aukera ematen badu.

11.3 Ez zaio emango laguntzarik 3.000,00 euro baino gutxiagoko zenbateko onargarria duten inbertsioei, kasu hauetan izan ezik:

- Diruz lagun daitezkeen beste batzuekin batera egindako inbertsioak, lotuta daudenak, muga hori gainditzen badute.

- Tantaka urreztatzeko inbertsioak eta ekoizpen ekologikorako inbertsioa, gutxienerako muga 1.500,00 euro bada.

Ekoizpen ekologikoari lotutako salbuespena baliatu ahal izateko, ustategi osoak eduki beharko du ekoizpen sistema horren ziurtagiria.

- Ekipamendu informatikoa, gutxienerako muga 1.000,00 euro bada.
- Lansarrietan egindako gastuak, gutxienerako muga ez bada ezartzen.

Deialdi bakoitzean, kasu bakoitzaren gutxienerako mugak zehaztu ahal izango dira.

## 12. artikulua. Laguntzen era eta ehunekoa

Onuradunen taldeak, laguntzaren ehunekoa eta modua honako hauek izango dira, deialdian besterik zehazten ez bada.

### 12.1 Sei onuradun talde ezartzen dira:

1. M06.1 neurriaren edo 6961.1 esku-hartzearen bidez instalazio prozesuan dauden pertsonak eta eskaeraren urtean 41 urte edo gutxiago betetzen dituztenak.

Elkarte-ustategien kasuan, talde honen barruan daudela joko da, baldin eta aurreko paragrafoan aipatutako pertsonak, onuradunen baldintzak betetzen badituzte, eskura duten kapitalean edo banaketa-kuotan duten partaidetzaren ehunekoa gutxienez ehuneko 50 bada.

2. Bost kide baino gutxiagoko merkataritza-elkarteak (kooperatibak, sozietate anonimoak, sozietate mugatuak eta CECAK).
3. Bost kide baino gehiagoko merkataritza-elkarteak (kooperatibak, sozietate anonimoak, sozietate mugatuak eta CECAK).
4. Hamar bazkide baino gutxiagoko NMEK-k.
5. Hamar bazkide baino gehiagoko NMEK-k.
6. Beste onuradun batzuk (pertsona fisikoak, S. Z., O. E. eta J.E.).

2 eta 5 taldetan sailkatzeko, onuradunen baldintzak betetzen dituzte bazkideak edo kooperatibako kideak kontuan hartuko dira.

12.2 Onuradun talde bat baino gehiagotan sar daitekeen eskatzailerik balego, dirulaguntzaren zenbateko total handiena ematen dion taldean sartuko zaio.

12.3 Inbertsio bakoitzaren dirulaguntzaren ehunekoak, eskatzaileen talde hauetarako adierazitakoak izango dira, diruz lagungarria den aurrekontuaren gainean:

- Nekazaritza makinatarako: 1. taldean, ehuneko 25; 2. eta 4. taldeetan, ehuneko 20; 3. eta 5. taldeetan, ehuneko 30, eta 6. taldean, ehuneko 15.

- Gainerako inbertsionarako: 1. taldean, ehuneko 45; 2. eta 6. taldeetan, ehuneko 35; 3., 4. eta 5. taldeetan, ehuneko 40.
- Lansariak: ehuneko 30 talde guztietarako.
- Informazio eta komunikazio sistema berriei egokituta dauden ekipamendu periferikoak, geolokalizazio sistemak (GPS), mapaketa, lan aldakorra eta komunikazio sistemak barne: ehuneko 35 talde guztietarako.

12.4 Dirulaguntzaren ehuneko hauek beste ehuneko 5 handi daitezke, irizpide hauetako bakoitza betetzen bada, eta meta daitezke:

- Formakuntza eginda izatea.
- Lehentasunezko gisa sailkatutako ustiatagia.
- Kalitate araubidean, nekazaritza ekoizpen ekologikoan, inskribatutako ustiatagia.

Formakuntzagatiko dirulaguntzaren ehunekoa handitzeko, nekazaritzaren arloko etengabeko prestakuntza ikastaroetara bertaratu dela egiaztatu beharko du. Ikastaro horiek, gutxienez, 40 ordukoak izan beharko dute, zentro homologatuetan emandakoak, eta dagoen deialdiaren aurreko urtean zehar egindakoa, eskaerak aurkezteko egunera arte.

Ez dira zenbatuko 3.2.1.c artikuluan adierazitako baldintza betetzeko balioetsitako prestakuntza-orduak.

Nekazaritzako elkarte ustiatagien kasuan, bazkideen ehuneko 50ek gutxienez formakuntzaren eta pertsona onuradunen baldintzak bete beharko dituzte, eta kapitalean edo banaketa kuotan, ehuneko 50eko partaidetza izan beharko dute gutxienez. Nolanahi ere, ikastaro bera ez da kontuan hartuko deialdi bat baino gehiagotan.

12.5 Adierazitako igoerak ez dira aplikatuko onuraduna NMEK bat bada, ez eta lansari profesionalen helburuak eta geolokalizazio sistemak ere (informazio eta komunikazio sistema berriei egokitutako ekipamendu periferikoak, GPS, mapaketa, lan aldakorra eta komunikazioa).

12.6 Emandako laguntza bati aplikatuko zaion gehieneko muga ezingo da izan diruz lagungarria den inbertsioaren ehuneko 65 baino handiagoa (Batzordeak 2022ko abenduaren 14an ezarritako 2022/2472 Arautegiko (EB) 14. artikulua 11. Atala). Nolanahi ere, ehuneko handiagoak aplikatu litezke aipatutako 14. artikulua horretan 12., 13., 14. eta 15. ataletan zehaztutako kasuetan.

12.7 Inbertsioen laguntzek kapital dirulaguntzen izaera izango dute.

13. artikulua. Espedienteak lehenesteko irizpideak

13.1 Bi gastu edo inbertsio, berez, euren artean nahitaez lotuta badaude, hala nola, eraikinen proiektuaren eta eraikuntzaren lansariak, edo unitate kudeatzaileak halakotzat hartzen duen beste edozein, lehentasun handieneko gastuari edo inbertsioari dagokion taldean sailkatuko dira biak, artikulua horretan adierazitako irizpideak kontuan hartuz.

13.2 Inbertsioak eskatzaileak bere eskaeran adierazten duen lehentasunaren arabera sailkatuko dira. Horrela, irizpide horren arabera talde independenteak sortuko dira, eta hala aztertuko dira. Talde bakoitzak lehentasuna izango du hurrengoaren aldean.

13.3 Lehentasun talde bakoitzean, puntuazio handienetik txikienera sailkatuko dira inbertsioak, orain adieraziko dugun moduan, deialdian besterik zehaztu ezean:

- a) Dirulaguntza jaso dezaketan 6.9. artikuluan adierazitako inbertsioekin eskatutakoak: 30 puntu.
- b) M06.1 neurriaren edo 6961.1 esku-hartzearen bidez instalazio prozesuan dauden pertsonen eskatutakoak: 25 puntu.
- c) Aurreko atalean barne hartuta ez dauden gazteek eskatutakoak: 20 puntu.
- d) Emakumeek eskatutakoak: 15 puntu.
- e) Gainerako eskatzaileek eskatutakoak: 10 puntu.

Puntuazio hori lehentasun-talde desberdinen artean meta daiteke.

13.4. Elkarteen kasuan, eskatzaile mota bakoitzaren barruan daudela ulertuko da, baldin eta hauen eskuetan, onuradunen baldintzak betetzen dituztenak, banaketa-kuotaren edo kapitalaren partaidetzaren ehunekoa gutxienez ehuneko 50 bada.

13.5 Puntu berak badituzte, inbertsioak dirulaguntzaren zenbatekorik txikienetik handienera sailkatuko dira.

14. artikulua. Eskabideak aurkezteko epea, modua eta lekua

14.1 Urtero dagokion laguntzen deialdia onartuko da, eta Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Besteak beste, hauek ere barne har ditzake:

- Laguntzen xede diren helburuak.
- Eskabideak aurkezteko epea, modua eta lekua.
- Deialdia ebazteko erreserbatzen diren kredituak.
- Espedienteak sailkatzeko irizpideak, onuradunen taldeak, modua eta laguntzaren ehunekoak.
- Hala badagokio, dekretu honetan ezarritakoa osatu behar balitz, eskaerari erantsi beharreko dokumentazioa.
- Diruz lagun daitekeen inbertsioaren gehieneko zenbatekoa, onuradun motaren arabera.
- Zein zenbatekotik behera inbertsioak ez diren diruz lagunduko.
- Eskatzaileen eta ustiatagietan egindako inbertsioen baldintzak, istripu baten ondorioz, ekoizteko baliabideak kaltetu edo gutxitu badira.

- Diruz lagun daitezkeen inbertsioak onartzeko aldia.

14.2. Urteko eskabide bakarra aurkez daiteke.

14.3 Eskaera egiteko, inprimaki normalizatu erabiliko da, edo horretarako prestatutako prozesu telematikoaren bitartez, eta harekin batera, III. Eranskinean adierazitako agiriak ere aurkeztu beharko ditu.

Ordainketa-eskaerak inprimaki normalizatu eta 19. artikuluan xedatutakoaren arabera egingo dira.

14.4 Unitate kudeatzaileak beharreko informazioa eta ziurtagiriak bilduko ditu Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusitik eta Arabako Foru Aldundiaren Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saitetik. Era berean, beharrezkoa izango balitz, beste erakunde batzuetatik ere jasoko litzateke, betiere espedientea ebazteko eta diru laguntza ordaintzeko helburuarekin, eskatzaileak aurka egiten duela adierazten badu salbu. Kasu horretan, oinarri arautzaileetan eskatzen zaion beharrezko dokumentazioa aurkeztu beharko du, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikulua arautzen duen bezala.

Laguntza eskatzen duen ustategiari eta bere kideei buruzko informazioa nekazaritza ustategien erregistrotik aterako da. Erregistro hori behar bezala eguneratuta egon behar da, hala izatea eskatzailearen ardura izanik.

14.5 Diru laguntzaren eta honen ordainketaren eskaerak aurkezteak laguntzaren oinarri arautzaileetan eta dagokion deialdian ezarritako betekizunak eta konpromisoak ere onartzea ekarriko du.

15. artikulua. Eskaera zuzentzea edo hobetzea

Aurkeztutako eskaeran akatsen bat edo zehaztasun faltaren bat aurkitzen bada, edo ezarritako baldintza guztiak ez baditu betetzen, 10 eguneko epea emango zaio akats horiek zuzen ditzan, edo nahitaezko agiriak aurkez ditzan. Bestela, horrela egin ezean, bere eskaera baztertuko dutela adieraziko diote, Herri Administrazioetako Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68.1. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, aurretik emandako ebazpenaren ondoren.

Nolanahi ere, aurkeztutako eskaera egoki ulertu, ebaluatu eta izapidetzeko beharrezkotzat jotzen den beste agiri edo informazio osagarri eskatu ahal zaizkio eskatzaileari. Horrela, izapide hori ez badu betetzen, Herri Administrazioetako Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 73. artikuluan ezarritakoari jarraituko zaiola adieraziko zaio.

16. artikulua. Laguntza emateko prozeduraren antolamendua eta instrukzioa

16.1 Dirulaguntza horiek emateko prozeduraren instrukzioa Nekazaritza Sailaren Nekazaritza Egitura eta Landa Azpiegitura Atalari dagokio.

16.2 Oinarri arautzaile hauetan eta aplikatzeko gainerako arautegietan ezarritako hautaketa irizpideen arabera aurkeztutako eskaerak aztertzeke eta azken ebaluazioa egiteko, kide anitzeko organo bat eratuko da, unitate kudeatzaileak aldeztu aurretik aztertuta.

Laguntzak emateko kide anitzeko balorazio organoa ondoren adierazten diren pertsonak edo haiek eskuordetzen dituzten pertsonak osatuko dute:

- Nekazaritza Garapenerako Zerbitzuko burua.
- Egituraren eta landa azpiegituraren ataleko teknikari bat, nekazaritza garapenerako zerbitzu horri atxikia.
- Nekazaritzako Idazkaritza Teknikoko Zerbitzuaren burua.

Organo horren kide kopurua handi daiteke, Nekazaritza Zuzendaritzak hala erabakiz gero.

Beharrezkoa izango balitz, organo honek eskumena du eskatzaileek proposatutako kostuak neurtu direla egiaztatzeko.

Organo horrek, aholkularitza eta dagozkion txosten teknikoak egitea eska dezake bere lana egiteko, eta bai Nekazaritza Saileko zuzendariari, bai Nekazaritzako diputatuari, laguntza emateko edo ukatzeko proposamena helaraziko die, dagokien moduan ebatz dezaten.

16.3 Oinarri arautzaile hauetan ezarritako laguntzak norgehiagoka prozedura bidez emango dira, 13. artikuluan ezarritako hautaketa irizpideen arabera.

Baldin ez badago kreditu nahikorik betekizunak betetzen dituzten espediente guztiei laguntzak emateko, honela jokatuko da:

Lehen ebazpen bat emango da, eta hor, proposamen negatiboa eta positiboa duten espedienteak barne hartuko dira, gordetako kreditua agortu arte. Horretarako, lehenetsun irizpideak aplikatzearen ondorioz sortzen den ordenari jarraituko zaio. Proposamen positiboa duten gainerako espedienteen inbertsioak erreserban geratuko dira, bigarren ebazpen bat eman arte. Bigarren ebazpenak behin betiko ebatziko du deialdia, eta kreditua handitu bada ezarritako lehenetsun ordenari jarraituz, dagokien espedientei laguntza emango die. Bestela, aurrekontu krediturik ez badago, ukatuko da.

16.4 Unitate kudeatzaileak laguntza emateko oinarri arautzaile hauetan jasota ez dauden alderdi tekniko guztiak ebatzi beharko ditu.

17. artikulua. Ebazpena eta jakinarazpena.

17.1 Kide anitzeko balorazio organoak hala proposatuta, foru organo eskudunak ebatziko ditu espedienteak, indarra duen arautegian oinarrituta.

17.2 Administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 21. artikuluan xedatutakoa betez, gehienez, sei hilabete izango da prozeduraren ebazpena eman eta jakinarazteko, eskabideak aurkezteko epea bukatzen denetik aurrera. Epe hori igarota berariazko ebazpena eman eta jakinarazi ez bada, administrazioaren isiltasunak eskabidea ezetsi dela esan nahiko du, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen 11/2016 Foru Arauaren 23.5 artikuluari jarraituz.



17.3 Deialdia ebazteko erabakiak onartutako, ukatutako eta baztertutako inbertsioak ezarriko ditu espediente bakoitzeko. Onartutako inbertsioetarako, diruz lagungarria den aurrekontua, dirulaguntzaren ehunekoa, dirulaguntzaren zenbatekoa eta urteko kuota, inbertsioa gauzatzeko eta ordainketa-eskaera aurkezteko epea eta, hala badagokio, laguntza ezesteko arrazoia.

Ebazpena negatiboa izenez gero, arrazoia zehaztu beharko da.

17.4 Laguntzaren ebazpena banaka jakinaraziko da eta, ere berean, honako informazio hau guztia ere adieraziko da jakinarazpenean: diruz lagungarria den aurrekontua, dirulaguntzaren ehunekoa, dirulaguntzaren zenbatekoa eta urteko kuota, inbertsioa gauzatzeko eta ordainketa-eskaera aurkezteko epea eta, hala badagokio, laguntza ezesteko arrazoia.

Era berean, ezartzen diren baldintzak eta laguntzaren erakunde onuradunak hartzen dituen konpromisoak adieraziko dira, eta inbertsioa egin dela egiaztatzen duen dokumentazioa aurkezteko epea zehaztuko da.

18. artikulua. Inbertsio planaren aldaketak

18.1 Diruz lagundutako inbertsioak, hobekuntzak edo jarduketak laguntza emateko ebazpenaren jakinarazpenean ageri den apean gauzatu beharko dira, gehienez, 3 urtekoa dena. Nolanahi ere, diruz lagun daitezkeen inbertsioak onartzeko aldia hasaraz daitezke, 5.2 artikuluan jasotakoa aplikatzen den kasuak alde batera utzi gabe. Inbertsioa hasteak ez du ekartzen ebazpen positiborik, eta negatiboa izango balitz, egindako gastu guztiak eskatzailearen kontura izango dira.

18.2 Onuradunak diruz lagundutako inbertsioak eta gastuak egiteko konpromisoa hartuko du, laguntza emateko ebazpenean eta honako oinarri arautzaile hauetan ezarritakoei jarraiki.

18.3 Diruz lagundutako jarduera egiteko epea amaitu aurretik, onuradunak diru-laguntza eman duen erakundeari eskatu ahal izango dio emate-ebazpena aldatzeko eta, ondorioz, finkatutako epealdiak luzatzeko, emandako zenbatekoa murrizteko edo jarduera osatzen duten ekintzak aldatzeko. Horretarako baimena emango da aldaketaren eragilea ezusteko inguruabarra izanez gero edo jarduera ondo burutzeko beharrezkoa izanez gero, baldin eta hirugarren pertsonen eskubideak eragozten ez badira.

Inbertsioak aldatzeko eskaera ondasun berriak eskuratu edo gauzatu aurretik aurkeztuko da. Eskaera horren arrazoiak behar bezala azalduta jasoko dira, eta hala badagokio, laguntzaren zenbatekoa berriro kalkulatzea ere ekarriko du.

Nekazaritza Saileko foru agindu bidez, alde ala kontra ebatziko du eskatutako aldaketa, eta ebazpen horren berri emango zaie onuradunei.

Aldaketek ez dute ekarriko inola ere hasieran emandako dirulaguntzaren zenbatekoa handitzea. Zenbatekoa txikiagotzen bada, laguntzaren itzultze partziala edo murrizketa egingo da.

18.4 Onuradunak uko egin ahal izango dio emandako laguntzari. Emandako dirulaguntza onartu ondoren aurkez daiteke ukoa, baina inbertsioa gauzatzeko epea amaitu baino lehen. Prozedura amaitutzat hartuko da eta onuradunak automatikoki laguntza jasotzeko onartutako eskubidea galduko du, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 94. artikulua ezarritakoaren arabera.

18.5 Laguntzaren onuradunak inbertsioak gauzaten ez baditu ezarritako epean, uko egiteko eskaerarik egin gabe, laguntzaren eskubidea galduko du eta 2 urteko epean ezin izango du beste laguntzarik eskatu inbertsio berdinak gauzatzeko.

19. artikulua. Emandako dirulaguntza ordaintzea

19.1 Dirulaguntza ordainduko da inbertsioak edota gastuak egindakoan, laguntzaren onuradunak inbertsio bakoitza dagokion urteko kuotan ordaintzeko eskabidea egin ondoren eta honako agiri hauek guztiak eman eta gero:

- Egindako gastuak justifikatzea, dagokion faktura aurkeztuz.
- Ordainketa egiaztatzea agiri hauetako baten bidez: ordainketa eragiketaren ziurtagiria edo bankuaren egiaztagiria. Hor, gutxienez, agindu-emailea, zenbatekoa, data eta ordainketaren onuraduna jaso beharko dira. Eskudirutan ordaintzen bada, fakturaren bidez egiaztatu beharko da, sinatzen edo jasotzen duen pertsonaren ziguilarekin, sinadurarekin eta datuekin, edo sinatzailearen datuekin.
- Dena den, 1.000,00 euroko edo hortik gorako gastuak banku-transferentzia edo bestelako banku-titulu baten bidez egiaztatu beharko dira, uztailaren 9ko 11/2021 Legeari, iruzurra prebenitzeko eta haren aurka borrokatzeko neurriei buruzkoari, jarraituz, edo indarreko legediak ezarritako zenbatekoaren arabera.
- Inbertsioa finantza kontratuaren bidez justifikatuta geratzen bada, ordaintzeko eskaera aurkeztu arte egindako ordainketaren ziurtagiriak eta kontratua aurkeztu beharko dira. Horrez gain, onuradunak kontratu horretan jasotzen diren gainerako kuoten ordainketa justifikatu ere egin beharko ditu.
- Dagokion udal lizentzia lortzeko proiektua aurkeztu behar den eraikinetan, obra zuzendaritzak egindako obren edo bilketen ziurtagiria aurkeztu beharko du. Horrez gain, obra amaierako ikusonetsitako ziurtagiriarekin batera, gutxienez suteak barne hartzen dituen inbertsioaren aseguruaren poliza erantsi beharko du.
- Ziurtagiri partzialen gaineko ordainketak egin daitezke, eta onuradunak inbertsioa osorik gauzatu beharko du.
- Laguntza ordaintzeko eskaeran, inbertsio bererako beste erakunde publiko edo pribatu batzuetan bestelako laguntzak eskatu dituen aitortu beharko du; baita zein izan diren ere.  
  
Erakunde horiek laguntza ebatzi badute, ebazpena aurkeztu beharko dute. Hala badagokio, dirulaguntza ordaintzeko zenbatekoa doituko da, arautegiaren arabera onartutako gehieneko mugak eta ehunekoak kontuan hartuz.
- Natura hondamendiak, epizootiak, landareen gaixotasun larriak edo istripu baten ondoriozko hondatzeak direla eta diruz lagunduko inbertsioen kasuan, aseguruak konpentsatutako zenbatekoak egiaztatzen dituen dokumentazioa aurkeztu beharko dute.
- Erantzukizunpeko adierazpena, dokumentuak egiazkoak direla.

19.2 Inbertsio bat ordaintzeko eskaeran, kuotak urtebete baino gehiagotan ordaintzea ezarri bada, onuradunak egiaztatzen badu amaitu dela, aurreikusitako urteko kuotaren aurretik. Eskaera horrekin bakarrik balioko du geratzen diren ziurtagiri guztiak izapidetzeko. Ebazteko erabakian finkatutako urteko kuotetan egingo da ordainketa, ofizioz.

19.3. Oinarri arautzaile hauetan aurreikusitako laguntzak hainbat urtetan banatu ahal izango dira, ordainketa ondorioetarako, baldin eta konpromiso krediturik badago eta aurrekontu baldintzek hala eskatzen badute.

19.4 Oinarri arautzaile hauetan ezarritako dirulaguntzen onuradun diren pertsonak kobratzeko eskubideak laga ahal dizkiete kontratista esleipendunei edo hornitzaileei; hala, zuzenean jasoko dute esandakoek ordainketa bakoitzari dagokion dirulaguntzaren zenbatekoa.

19.5 Dirulaguntza ordaindu ahal izateko, dirulaguntzen gutxieneko zenbatekoa (11.3 artikuluan aipatzen dena) baino handiagoa edo haren berdina izan beharko da diruz lagundu ahal den inbertsioa.

19.6 Laguntza egiaztatzen den unean laguntza txikiagotzea ekartzen duen emateko baldintzen aldaketa bat gertatu dela hautematen bada, itzultze partziala edo haren murrizketa bat egingo da.

19.7 Dirulaguntzaren ordainketak egin aurretik, pertsonak edo erakunde onuradunak zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarenak egunean dituztela egiaztatuko da.

19.8 Unitate kudeatzaileak, zuzen izapidetzeko beharrezkotzat jotzen dituen bestelako datu edo agiriak aurkeztea eskatu ahalko dio onuradunari.

20. artikulua. Ezarritako betebeharrak eta konpromisoak ez betetzea

20.1 Onuradunak oinarri arautzaile hauetan eta laguntza emateko ebazpenean ezarritako betebeharrak eta konpromisoak bete ezean, edo laguntza eskuratuz gero horretarako beharrezkoak diren betekizun guztiak bete gabe, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko urriaren 1ko 11/2016 Foru Arauan ezarritakoaren arabera, honako hau ekarriko du:

- Emandako laguntza jasotzeko eskubidea galtzea, eta hala badagokio, Arabako Foru Ogasunari jaso diren kopuruak itzultzea, legez aplikatuko zaizkion interesak barne.
- Etorkizuneko urteko kuotetan jasotzea dagozkion ordainketen edo laguntzaren txikiagotzea, dagozkion ekintzak gorabehera.

20.2. Zenbateko horiek zuzenbide publikoko diru sarreretatik joko dira, legez dagozkion ondorioetarako.

20.3 Nekazaritza Sailaren foru agindu bidez erabakiko da dirulaguntzaren itzulketa osoa edo horren zati bat egitea, ikuskapen edo kontrol txostena eta itzultzeko proposamena ikusirik, eta onuradunari entzun ondoren.

20.4 Dirulaguntza osoa edo zati bat itzultzeko prozeduraz gainera, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak ezarritako arau hausteen ziozko zehapen prozedura abiarazi ahalko da.

20.5 Onuradunak ez badu mantentzen dirulaguntza jasotzen duten eraikin eta instalazio finkoen inbertsioa konpromisoaldiaren lehen 7 urteetan, laguntza guztia itzuli behar du. Aurrekoak ez diren bestelako gastu edo inbertsioak makinetan, osorik itzultzeko epea 5 urtekoa izango da.

Epe horiek igarotakoan, konpromisoaldia bete arte, laguntzaren itzultze partziala geratzen den urte kopuruarekiko proportzionala izango da.

20.6 Elkarrekin erakunde batean, laguntza eman eta hurrengo 5 urteetan, bazkide gazte bat ustiapenean ezartzeko prozesuan badago eta 6961.1 esku-hartzearen onuradun gisa hartutako konpromisoak ez baditu betetzen, baina erakundeak inbertsio laguntza honetarako konpromisoak betetzen jarraitzen badu, dirulaguntza eta haren itzultze partziala berriro kalkulatuko dira, gaztea sartzeak ekarri duen igoerarengatik dagokion zatian.

Irizpide bera erabiliko da inbertsioen laguntzaren eskatzailea pertsona fisiko gaztea bada.

20.7 Jarduerari uzten badio ez da ez-betetzat hartuko ustiategia beste titular bati eskualdatzen bazaio, eta eman dionaren konpromiso berak bere gain hartzen baditu.

20.8 Hartutako konpromisoen ez-beteterik ez dagoela ulertuko da, ezinbesteko arrazoiak edo salbuespenezko inguruabarrak badaude, hala nola, onuradunaren heriotza edo ezintasun profesional luzea, natura hondamendia, epizootiak, landarearen gaixotasun larria edo istripuen ondoriozko hondamendia.

Arrazoi horietako bat balego, berariaz jakinarazi eta egiaztatu behar du, agiri baten bidez, gertatu denetik hiru hilabetetara.

20.9 Justifikatutako eta diruz lagungarria den zenbatekoa hasieran emandako guztiaren ehuneko 50 baino txikiagoa bada, dirulaguntza osoa kobratzeko eskubidea galduko da.

## 21. artikulua. Araubide juridikoa

Foru dekretu honetan jasotzen diren dirulaguntzen onuradunek arautegi honi jarraituko diote:

- Batzordearen 2022/2472 Erregelamendua, 2022ko abenduaren 14koa, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua aplikatuz, nekazaritza- eta basogintza-sektoreetako eta landa-eremuetako laguntza-kategoria jakin batzuk barne-merkatuarekin bateragarriak direla deklaratzeko duena.
- 11/2016 Foru Araua, urriaren 19koa, Arabako Lurralde Historikoaren dirulaguntzena.
- 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntzen Orokorra, eta 887/2006 Errege Dekretu zuzentzailearen 21ekoak onartutako aplikazio erregelamendua.
- 39/2015 Legea, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenarena.
- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen eta Administrazio Prozedura Erkidearen Araubide Juridikoari buruzkoa, eta hura garatzen duen arautegia.
- 4/2010 Errege Dekretua, urtarrilaren 8koa, Administrazio Publikoen Elkarreragingarritasunerako Nazio Eskema arautzen duena.

- 311/2022 Errege Dekretua, maiatzaren 3koa, Segurtasunerako Nazio Eskema arautzen duena .
- 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa.
- 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako.
- Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu batagina onartzen duena.
- Urriaren 15eko 8/2015 Legea, EAeko Emakume Nekazarien Estatutuarena.
- Aplikatzekoa den Estatuko eta autonomia erkidegoko gainerako arautegia.

22. artikulua. Beste dirulaguntza batzuekiko bateragarritasuna

22.1 Dekretu honetan ezarritako laguntzak bateragarriak izango dira Europar Batasuneko, estatuko edo Euskal Autonomia Erkidegoko beste erakunde publiko edo pribatu batzuek emandako beste zeinahi dirulaguntzarekin.

Emandako dirulaguntzetan aplikatzekoa den gehieneko muga ezingo da izan Batzordeak 2022ko abenduaren 14an ezarritako 2022/2472 Arautegian ezarritako mugak baino handiagoa, laguntzetan aplika daitekeen erkidegoko arautegiak oinarri arautzaile hauetako baino muga handiagoak ezartzen baditu izan ezik.

Hala ere, emandako dirulaguntzaren zenbatekoa, osorik hartuta, ezingo da inoiz izan handiagoa, bakarrik edo beste laguntza, dirulaguntza, sarrera edo baliabide batzuekin batera, ezenez diruz lagundutako jardueraren kostua.

Aurreko mugetako bat gainditzen badu, emateko den edo emandako dirulaguntza dagokion kopuruan txikiagotuko da.

22.2 Onuradunek, jakin bezain laster jakinarazi beharko dituzte beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide jaso dituzten, diruz lagundutako jarduerak finantzatzen badituzte. Horrekin batera, hala badagokie, laguntza ematen den ebazpenaren kopia ere aurkeztuko dute. Hori guztia Arabako Lurralde Historikoaren dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauko 18.3 eta 18.4 artikuluan ezarritako ondorioetarako. Horrela, dirulaguntza emateko ebazpena aldatu ahalko da, eta hala badagokio, dagokion itzultzeko prozedura hasiko du.

22.3 Nekazaritza ustiategi batean instalatzen diren pertsonak, 6961.1 esku-hartzearen bidez, eta 06.1 neurrian daudenak, Foru Dekretu honetan ezarritako laguntzak jaso ahalko dituzte beren enpresa plana garatzeko. Laguntza horiek gazteak instalatu nahi duen ustiapenean aplikatu ahalko dira.

23. artikulua. Publizitatea eta informazioa

Inbertsio programaren onuradunak 50.000,00 euro baino gehiagoko dirulaguntza jasotzen badu, Arabako Foru Aldundiaren finantzazioaren berri eman beharko du. Horretarako, erakundearen irudia eta finantzazio publikoari buruzko testuak txertatu beharko ditu karteletan.

24. artikulua. Laguntzaren finantzaketa

Dekretu honetan ezartzen den laguntzarako bideratutako baliabide ekonomikoak Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza Sailaren aurrekontu kredituetatik etorriko dira, eta mugari dagokionez, deialdi bakoitzean ezarritako kopurua izango da. Indarreko legediak ezarritako mugen barruan, beste zenbateko batzuekin handi daiteke, baita aurrekontu sailetan edozein arrazoiengatik gerta daitekeen kreditu igoerarekin.

## ANEXO I. DEFINIZIOAK

Oinarri arautzaile hauen ondorioetarako, definizio hauek aplikatuko dira:

Nekazaritza jarduera: nekazaritzako produktuak ekoiztea, haztea edo ereitea, uzta, jeztea, animalien hazkuntza eta animalien mantentzea (nekazaritza ondorioetarako) barne, edo nekazaritza azalera bat egoera egokian mantentzea, bazkatzeko edo ereiteko, inolako prestaketarik egin gabe, normalean erabiliko nekazaritzako makinaren prestaketez harago. (Abenduaren 27ko 1048/2022 Errege Dekretua)

Nagusiki nekazari (NNP) izatea: nekazaria da nekazaritza ustiategi baten titularra den pertsona fisikoa da, baldin eta, gutxienez, errenta guztiaren ehuneko 50 bere ustiategian egindako nekazaritza jarduerarekin lortzen badu eta ustiategiarekin zuzeneko zerikusia duten jardueretara bideratzen duen lan denbora, urtean, nekazaritza lanaren unitateekin bat etorritz, lanerako denbora osoaren erdia edo gehiago bada.

Era berean, Gizarte Segurantzaren Nekazaritzako Araubide Berezian alta hartuta egon beharko da, bere kontura edo besteren konturako edo autonomoen Langileen Araubide Berezian, kasuetako edozeinetan, nekazaritza jardueraren arabera.

Ondorio horietarako, pertsona batek urte betean nekazaritza jarduerari dedikatutako denbora 1.800 ordukoa izango da (8 lan ordu eta 225 lan egun), Batzordearen (EB) 2015eko abuztuaren 13ko 2015/1391 Arautegiak, Europar Legebiltzarraren eta Kontseiluaren 1166/2008 Arautegia (EE) aplikatzen duen 1200/2009 Arautegia (EE) aldatu zuenak, II. eranskinean ezarritakoaren arabera, nekazaritza ustiategien egiturari buruzko inkesten gainekoa eta nekazaritza ekoizpeneko metodoei buruzko inkesten gainekoa. Urteko Lan Unitatea lantsaio osoaren lan baliokidea da.

Nekazari gaztea: eskabidea egiteko unean 18urte beteta dituen eta 41 bete ez dituen pertsona, nekazaritzako gaikuntza edota prestakuntza egokiak badauzka edo denboraldi jakin batean lortzen dituen, eta nekazaritza ustiategi batean lehen aldiz titular gisa jartzen dena.

Lurraren edota abereen erkidego ustiapenerako kooperatiba (LEUK): Kooperatiba horretako kideak dira nekazaritza eta abeltzaintzako ustiapenerako balio duten lurak edo beste ondasun higiezin nahiz abereei lotutako ondasun batzuk erabili eta aprobetxatzeko eskubideen titularrak; izan ere, titular horiek kooperatibari lagatzen dizkiete aipatutako eskubideak eta bertan lan egin dezakete edo ez. Beste pertsona fisiko batzuk ere badira kooperatibako kide; bertan lan egiten dute baina ondasunetaz baliatzeko eskubideak kooperatibari laga gabe, eta horrela kideek lagatutako ondasunak eta kooperatibak edozein titulu dela medio dituen gainerako ondasunak batera ustiatzen dituzte.

Nekazaritzako kooperatiba: nekazaritza, basogintza eta abeltzaintza ustiategietako edo ustiategi mistoetako titularrak bazkide dituzten kooperatibak, baldin eta helburu hauetakoren bat badute: edo hornidurak, ekoizpen ekipamenduak eta zerbitzuak merkaturatzea edo ematea, edo bazkideen ustiategiak, haien elementu edo osagaiak, kooperatiba bera edo landa ingurunekeo bizimodua edozein arlotan edo alderdi sozioekonomikoan hobetzeko lanak egitea.

Lan elkartuko kooperatiba edo ekoizpen kooperatiba: hirugarrenentzako ondasun edo zerbitzuen ekoizpena batera antolatuta bazkideei lanaldi partzialeko edo osoko lanpostuak ematea xede duen kooperatiba.

NMEK: Euskadiko kooperatibei buruzko abenduaren 20ko 11/2019 Legeak nekazaritza ustiategi modura sailkatzeko ezartzen dituen betebeharrak betetzen dituen kooperatiba. Haren xedea da nekazaritzarako erabiliko diren makina edo ekipamenduak erosi eta batera erabiltzea.

Nekazaritzako ustiatagia: titularrak nekazaritza jardueran enpresa modura antolatutako ondasun eta eskubide antolatuen multzoa da. Merkataritza helburuak ditu nagusi, eta unitate tekniko eta ekonomikoa osatzen du.

Nekazaritzako ustiatagiko titular berak kudeatutako ekoizpen unitateen multzoa (1048/2022 Errege Dekretua, abenduaren 27koa).

Titulartasun partekatuko nekazaritza ustiatagia: ezkontzaz edo antzeko harreman afektiboen bidez lotutako bi pertsonak nekazaritzako ustiategi bat elkarrekin kudeatzeko osatzen duten unitate ekonomikoa, nortasun juridikorik gabekoa eta zergapetu daitekeena.

Nekazaritza ustiatagiaren titularrek, titulartasun partekatua daukatenean, Gizarte Segurantzaren alta hartuta egon behar dute, nekazaritza jarduera egin behar dute, eta zuzenean jardun jarduera horretan, uztailaren 4ko 19/1995 Legean azaltzen den moduan, eta ustiatagia dagoen landa eremu berean bizi.

Nekazaritza ustiatagian jabetza partekatuak lege ondorio guztiak izan ditzan, ezinbestekoa izango da aldez aurretik Arabako Lurralde Historikoko Ustiatagien Erregistroan inskribatuta egotea.

Lehentasunezko ustiapena: Uztailaren 4ko 19/1995 Legean, nekazaritza ustiatagiak modernizatzeari buruzkoan, eta uztailaren 8ko 168/1997 Dekretuan, Euskal Autonomia Erkidegoan Lehentasunezko Nekazaritza Ustiatagiak arautu eta EAeko Lurralde Historiko zein eskualdeetan laborantzako gutxieneko unitateak ezartzen dituen, jasotzen diren baldintzak betetzen dituen nekazaritza ustiatagia.

Ustiatagien bat-egitea: Lehendik zeuden zenbait ustiatagiren arteko bat egite osoa edo partziala, ustiategi berria osatzeko.

Inbertsio plana: Urteko helburuz edo urte anitzeko helburuz, abiaburu teknikoak erabiltuta, nekazaritzako ustiatagiaren titularrak ustiategi osoan baliatu nahi dituen inbertsioen multzoa, ekoizpen egituraren eraginkortasuna hobetzeko. Plana aldi bakarrean edo gehiagotan burutu ahal izango da.

Eraldaketakoko nekazaritza sozietateak (S.A.T.): helburu ekonomiko eta sozialak dituzten sozietate zibilak, nekazaritzako eta abeltzaintzako produktuak ekoitzi, eraldatu eta merkaturatzeko.

Sozietate anonimoak: Sozietate zibilak, lan sozietateak edo bestelako merkataritza sozietateak. Anonimoak badira, akzioek izendunak izan beharko dute, betiere kapital sozialaren ehuneko 50 baino gehiago nekazari profesionalak diren bazkideena bada, halakorik balego. Sozietate horien helburu nagusia nekazaritza jarduera izango da titular diren ustiatagian.



Nekazaritza ustiatetik titularrak: Nekazaritza ustiatetik titularrak: pertsona fisikoak edo juridikoak, edo pertsona fisiko edo juridikoen talde oro, ondasun erkidegoak, jaraunspen banatugabeak edo oinordekoen erkidegoak, merkataritza helbururik gabeko sozietate zibilak eta titulartasun partekatuko araubideko ustiatetik barne, nekazaritza ustiatetik egindako nekazaritza jardueri buruzko erabakiak hartzeko ahalmena duena, etekinak lortzen dituen eta nekazaritza jardueratik eratorritako enpresa arriskua bere gain hartzen duena.

Nekazaritzako lan unitatea (NLU): Lanaldi osoan aritzen den pertsona batek urtebetean nekazaritza jardueran egindako lana. Indarrean dagoen Garapen Ekonomiko eta Lehiakortasun Saileko Sailburuaren Aginduaren, laboreen marjina gordinak, nekazaritzako lan unitateak (NLU) zehazteko modulu objektiboak eta Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza ustiatetik gastu finkeko koefizienteak finkatzen dituenaren, arabera kalkulatu da.

Azienda larri unitatea (AzLU): Nekazaritza ustiatetik baten abeltzaintza zama . Kalkulatzeko, abenduaren 27ko 1048/2022 EDn ezarritakoa kontuan hartuko da.

Abereak	Adina	AzLU
Behi azienda	I urtetik beherakoak	0,400
	Urtebetekoa-bi urte baino gutxiagokoa	0,700
	Bi urteko edo gehiagoko arrak	1,000
	Bi urteko edo gehiagoko zekorrak	0,800
	Esnea ematen duten behiak, bi urtekoak edo gehiagokoak	1,000
	Beste behi batzuk, bi urtekoak edo gehiagokoak	0,800
Ardi azienda eta ahuntz azienda		0,100
Zaldi azienda		0,800
Txerri azienda	Txerrikumeak >20 kg bizirik.	0,027
	Ugaltzeko txerri emeak > 50 kg	0,500
	Beste txerri batzuk	0,300

II. ERANSKINA. XEDEAK

1. Traktorea
2. Uzta biltzeko makinak.
3. Gainerako makinak.
4. Nekazaritza eraikinak.
5. Abeltzaintza eraikinak.
6. Nekazaritzako instalazio finkoak.
7. Abeltzaintzako instalazio finkoak.
8. Nekazaritzako mekanismo eta/edo instalazio mugigarriak.
9. Abeltzaintzako mekanismo eta/edo instalazio mugigarriak.
10. Jezteko robota edo jezte-gela berriak instalatzea.
11. Minda putzua.
12. Patataren instalazioa/maneiuak/kontserbazioa.
13. Egurretarako landaketak.
14. Nekazaritzako lurak eta azpiegiturak hobetzea.
15. Ekipamendu informatikoa.
16. Abereak erostea
17. Bioenergiaren edota energia berriztagarrien ekoizpena.
18. Lansariak.
19. Geolokalizazio sistemak (GPS).

## III. ERANSKINA. ESKAERARI ERANTSI BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Eskaera bakoitzean agiri hauek aurkeztu behar dira (eskaera bakoitzean eskatzen diren inbertsioen arabera baliteke agiri gehiago aurkezteko eskatzea):

## USTIATEGIAREN TITULARRAREN ARABERA

## A. ORO HAR

1. Inprimaki normalizatua. (1)
2. Ustiategiaren titularra den pertsona fisikoaren eta, behar denean, ustiategiko kide guztien nortasun frogagiriak (NAN edo IFZ). (\*)
3. Laguntza eskatzen duen pertsonak bere gain hartzen dituen konpromisoen agiria, titularrak edo legezko ordezkariak sinatua. (1)
4. Ustiategiko kide guztiek Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorrekiko betebeharrak egunean dauzkatelako ziurtagiria. Salbuespena: merkataritza sozietateen kasuan, pertsona juridikoaren betebeharrari buruzko ziurtagiria baino ez da aurkeztu behar.. (\*)
5. Pertsona edo sozietate eskatzaileak Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailarekiko edo beste foru ogasun batekiko betebeharrak egunean dauzkalako ziurtagiria. (\*)  
  
Zerga egoitza Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo egonez gero, ziurtagiri hau aurkeztu behar da.
6. Gizarte Segurantzaren nekazaritzako jardueran alta emanda dagoelako frogagiria. (\*)
7. Ustiategiko kide bakoitzaren lan bizitzaren txostena. (\*)
8. Behar denean, nekazaritzako jardueratik kanpo lanean egindako orduei buruzko erantzukizunpeko adierazpena edo lan kontratua. (1)
9. Behar denean, deialdiaren aurreko urtean zentro homologatuetan emandako nekazaritzaren arloko etengabeko prestatuntzako ikastaroetan gutxienez 40 ordu egin dituelako ziurtagiria.
10. Hala badagokio, inbertsioen plana eta haien bideragarritasunari buruzko azterlana, guztirako zenbatekoa 250.000,00 euro baino gehiago izanez gero.
11. Hirugarrenen alta fitxa, jatorrizko inprimaki normalizatu batean, eta finantza entitatearen eta interesdunaren adostasuna. AFaren egoitza elektronikoan ere egin daitezke altak eta aldaketak (1):  
<https://egoitza.araba.eus/eu/-/alta-modificacion-terceros-diputacion-foral-de-alava?inheritRedirect=true>
12. Behar denean, ziurtatutako ekoizpen ekologikoaren erregistroetan izena emanda dagoela frogatzen duen ziurtagiria. (\*)
13. Azken ekitaldiko PFEZen aitortpena. (\*)
14. Lan gaitasuna frogatzen duen dokumentazioa.

**B. SOZIJETATE ZIBILA, ONDASUN ERKIDEGOA EDO JARAUNSPEN ERKIDEGOA**

A ataleko agiriez gainera honako hauek ere aurkeztu behar dira:

1. Eraketaren eskritura publikoa edo kontratu pribatua, eta, behar denean, estatutuak ere bai.
2. Bazkideen zerrenda nominala eta sozietatearen kapitalaren banaketa edo partaidetzaren ehunekoa (1)
3. Eskatzailea jaraunspen erkidegoa edo ondasun erkidegoa bada, indibisio ituna, 6 urtekoa, gutxienez, eskaera aurkezten den egunetik, kide guztiek sinatua. (1)

**C. MERKATARITZA SOZIJETATEA**

A ataleko agiriez gainera honako hauek ere aurkeztu behar dira:

1. Eraketaren eskritura publikoa.
2. Bazkideen zerrenda nominala eta sozietatearen kapitalaren banaketa edo partaidetzaren ehunekoa (1)
3. Honako datu guztiak biltzen dituen ziurtagiria: zuzendaritza kontseiluaren osaera; ordezkari baimentzeko erabakia; batzar nagusiaren erabakia inbertsioak egiteko; erabakia, ezartzen duena titulurik eskualdatuz gero, bermatuta geratu beharko dela inbertsioari eusteko konpromisoaren aldirian bazkideen ehuneko 50 gutxienez JNNak izatea eta sozietatearen kapitalaren edo banaketa kuotaren ehuneko 50 gutxienez JNN diren kideena izatea. (1)
4. Behar denean, sozietatearen gaineko zergaren aitortpena. (\*)
5. Eskatzailea kooperatiba izanez gero, Euskal Autonomia Erkidegoko Kooperatiben Erregistroan inskribatuta dagoelako ziurtagiria.

**D. NEKAZARITZAKO MAKINAK ELKARLANEAN ERABILTZEKO KOOPERATIBA (NMEK)**

A ataleko agiriez gainera honako hauek ere aurkeztu behar dira:

1. Eraketaren eskritura publikoa.
2. Honako datu guztiak biltzen dituen ziurtagiria: zuzendaritza kontseiluaren osaera; ordezkari baimentzeko erabakia; batzar nagusiaren erabakia inbertsioak egiteko; erabakia, ezartzen duena titulurik eskualdatuz gero bermatuta geratu beharko dela inbertsioari eusteko konpromisoaren aldirian bazkideen ehuneko 50 gutxienez JNNak izatea eta sozietatearen kapitalaren edo banaketa kuotaren ehuneko 50 gutxienez JNN diren kideena izatea. (1)
3. Hirugarrenentzako lanik eginez gero, lan horiek kooperatibaren fakturazioaren ehuneko 40tik beherakoa dela dioen erantzukizunpeko adierazpena. (1)
4. Bazkideek eskatutako inbertsioaren balioaren ehuneko 20 kapital sozial gisa ordaindu dutela frogatzen duen agiria. (1)

5. Kooperatiba Euskal Autonomia Erkidegoko Kooperatiben Erregistroan inskribatuta dagoelako ziurtagiria.

#### EGINGO DIREN INBERTSIOEN ARABERA

- A.** Traktorea edo uzta biltzeko makina erosteko:
- Aurrekontua edo proformako faktura, honako hauek zehaztuta: CVak, modeloa eta prestazioak.
- B.** Beste makina batzuk erosteko:
- Inbertsioa modulatuta badago: aurrekontua edo proformako faktura.
  - Inbertsioa ez badago modulatuta eta zenbatekoa sektore publikoko kontratuei buruzko indarreko legerian hornidura edo zerbitzu kontratu txikietarako ezarritakoa baino gehiago bada: 3 aurrekontu.
- C.** Nekazaritza eta abeltzaintzako eraikuntzetarako edo minda putzu kolektiboetarako:
- Obraren proiektua, ikusonetsita.
  - Obra lizentzia.
  - Obra lizentziarik behar ez bada, hori adierazten duen udal ziurtagiria.
  - Eraikina egingo den lurzatiaren edo esku hartuko den eraikinaren jabetza frogatzen duen katastro ziurtagiria edo eskritura.
  - Behar denean, lurzatiaren jabearen baimena inbertsioak egiteko eta lurrak lagatzeko inbertsioen gutxienerako iraupendian. (1)
- D.** Nekazaritza eta abeltzaintzako instalazio finkoetarako, jezteko robota erosteko eta jezte-gela berriak instalatzeko, bioenergia edota energia berriztagarria ekoizteko:
- Obra zibila:
    - Obraren proiektua, ikusonetsita.
    - Obra lizentzia.
    - Obra lizentziarik behar ez bada, hori adierazten duen udal ziurtagiria.
    - Eraikina egingo den lurzatiaren edo esku hartuko den eraikinaren jabetza frogatzen duen katastro ziurtagiria edo eskritura.
    - Behar denean, lurzatiaren jabearen baimena inbertsioak egiteko eta lurrak lagatzeko inbertsioen gutxienerako iraupendian. (1)
  - Obra zibilik gabeko instalazioa:
    - Inbertsioa modulatuta badago: aurrekontua edo proformako faktura.
    - Inbertsioa ez badago modulatuta eta zenbatekoa sektore publikoko kontratuei buruzko indarreko legerian hornidura edo zerbitzu kontratu txikietarako ezarritakoa baino gehiago bada: 3 aurrekontu.
- E.** Nekazaritza eta abeltzaintzako mekanismo edota instalazio mugigarrietarako:

- Inbertsioa modulatuta badago: aurrekontua edo proformako faktura.
- Inbertsioa ez badago modulatuta eta zenbatekoa sektore publikoko kontratuei buruzko indarreko legerian hornidura edo zerbitzu kontratu txikietarako ezarritakoa baino gehiago bada: 3 aurrekontu.

**F.** Patataren instalaziorako/maneiorako/kontserbaziorako:

- Inbertsioa modulatuta badago: aurrekontua edo proformako faktura.
- Inbertsioa ez badago modulatuta eta zenbatekoa sektore publikoko kontratuei buruzko indarreko legerian hornidura edo zerbitzu kontratu txikietarako ezarritakoa baino gehiago bada: 3 aurrekontu.

**G.** Zurezko laboreak landatzeko:

- Inbertsioa modulatuta badago: aurrekontua edo proformako faktura.
- Inbertsioa ez badago modulatuta eta zenbatekoa sektore publikoko kontratuei buruzko indarreko legerian hornidura edo zerbitzu kontratu txikietarako ezarritakoa baino gehiago bada: 3 aurrekontu.
- Landaketa egingo den lursailen zerrenda, udal, poligono, lursail eta SIGPAC esparruen arabera, honako datu hauek adierazita: lursail bakoitzaren azalera, edukitza erregimena eta aurrekontua. (1)
- Jarduera egingo den lurzatiaren jabetza frogatzen duen katastro ziurtagiria edo eskritura.
- Behar denean, lurzatiaren jabearen baimena inbertsioak egiteko eta lurrak lagatzeko inbertsioen gutxienerako iraunaldian. (1)

**H.** Nekazaritzako lurrak eta azpiegiturak hobetzeko:

H.1 Bide pribatuak, zolatak eta ustategiko sarbideetako beste hobekuntza batzuk:

- Obraren proiektua, ikusonetsita.
- Obra lizentzia.
- Obra lizentziarik behar ez bada, hori adierazten duen udal ziurtagiria.
- Jarduera egingo den lurzatiaren jabetza frogatzen duen katastro ziurtagiria edo eskritura.
- Behar denean, lurzatiaren jabearen baimena inbertsioak egiteko eta lurrak lagatzeko inbertsioen gutxienerako iraunaldian. (1)
- Landaketa egingo den lursailen zerrenda, udal, poligono, lursail eta SIGPAC esparruen arabera, honako datu hauek adierazita: lursail bakoitzaren azalera, edukitza erregimena eta aurrekontua. (1)

H.2. Itxiturak:

- Inbertsioa modulatuta badago: aurrekontua edo proformako faktura.

- Inbertsioa ez badago modulatuta eta zenbatekoa sektore publikoko kontratuei buruzko indarreko legerian hornidura edo zerbitzu kontratu txikietarako ezarritakoa baino gehiago bada: 3 aurrekontu.

Gainera, esparru eta itxituretarako:

- Obra lizentzia.
- Obra lizentziarik behar ez bada, hori adierazten duen udal ziurtagiria.
- Jarduera egingo den lurzatiaren jabetza frogatzen duen katastro ziuurtagiria edo eskritura.
- Behar denean, lurzatiaren jabearen baimena inbertsioak egiteko eta lurrak lagatzeko inbertsioen gutxieneko iraunaldian. (1)
- Landaketa egingo den lursailen zerrenda, udal, poligono, lursail eta SIGPAC esparruen arabera, honako datu hauek adierazita: lursail bakoitzaren azalera, edukitza erregimena eta aurrekontua. (1)
- Hala badagokio, mugakide den udalerriko lurzatiak NUEn egoteko konpromisoa. (1)

H.3. Ureztatzeko:

- Ureztatzeko osagarriak:
  - Inbertsioa modulatuta badago: aurrekontua edo proformako faktura.
  - Inbertsioa ez badago modulatuta eta zenbatekoa sektore publikoko kontratuei buruzko indarreko legerian hornidura edo zerbitzu kontratu txikietarako ezarritakoa baino gehiago bada: 3 aurrekontu.
- Tantakako ureztatze instalazioetarako:
  - Ureztatzaile erkidegoaren ziurtagiria. (1)
  - Eskatzailea ureztatzaile erkidegoko kidea ez bada, ur kontzesioa.
  - Aurrekontua, identifikatutako lurzatiaren zerrenda adierazten duena, udalerriri, poligono, lurzati eta SIGPAC esparruen arabera, azalera adieraziz. Aurrekontua lurzati bakoitzarentzat egingo da, eta aurrekontu globala aurkeztu ahalko da lurzatiek laborantza unitate bat eratzen badute.
  - Jarduera egingo den lurzatiaren jabetza frogatzen duen katastro ziuurtagiria edo eskritura.
  - Behar denean, lurzatiaren jabearen baimena inbertsioak egiteko eta lurrak lagatzeko inbertsioen gutxieneko iraunaldian. (1)
  - Hala badagokio, mugakide den udalerriko lurzatiak NUEn egoteko konpromisoa. (1)

I. Ekipo informatikoetarako edo GPSetarako:

- Inbertsioa modulatuta badago: aurrekontua edo proformako faktura.
- Inbertsioa ez badago modulatuta eta zenbatekoa sektore publikoko kontratuei buruzko indarreko legerian hornidura edo zerbitzu kontratu txikietarako ezarritakoa baino gehiago bada: 3 aurrekontu.

**J.** Abereak eskuratzeko:

- Aurrekontua edo proformako faktura.

**K.** Lansariak:

- Aurrekontua edo jatorrizko faktura, egonez gero.

(\* ) Atal honetan adierazitako ziurtagiriak ez ditu aurkeztu behar, Administrazioaren esku baitaude. Berariaz aurka egingo balu, prozedurari buruzko datu edo agiriak aurkeztu beharko ditu nahitaez eskaerarekin batera, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikulua ezarritakoaren arabera.

(1) Agiriaren eredia Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan eskuratu daiteke, Nekazaritza Sailaren atalean.



## IV. ERANSKINA. MERKATUKO KOSTUAK EDO INBERTSIOAK BALORATZEKO MODULUAK

SAILKAPENA	HELBURUA	KODEA	INBERTSIOA	UNITATEA	PROPOSAMENA
<b>TRAKTOREA</b>			<b>GEHIENEO MUGA HELBURUKO</b>		<b>120.000,00 €</b>
	Traktorea	01.002.23	Traktorea, >= 50 CV eta < 100 CV potentziako (650 €/CV)	ud.	45.000,00
	Traktorea	01.003.23	Traktorea, >= 100 CV eta < 150 CV potentziako (650 €/CV)	ud.	95.000,00
	Traktorea	01.004.23	Traktorea, >= 150 CV eta < 200 CV potentziako (650 €/CV)	ud.	110.000,00
	Traktorea	01.005.23	Traktorea, >= 200 CV potentziako (650 €/CV)	ud.	120.000,00
	Traktorea	01.006.23	Gurdi-traktoreak	ud.	29.500,00
<b>UZTA BILTZEKO MAKINERIA</b>			<b>GEHIENEO MUGA HELBURUKO</b>		<b>185.000,00 €</b>
